



Zutitu arte!

Etxarri Aranatzen, Bakaikun, Iturmendin eta Ziordian maiatzak jasoko dituzte asteazkenean / 6-14



Utzubar EKOfuneak hondakinak kudeatzen 25 urte bete dituen azpiegitura / 2-4

Ekaiko Kontzejuak bere egoitza eta elkarte hartzen dituen eraikina berri du / 7

Altsasun erabakitako Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan podiuma igo zuen Iskizak / 17

Aingura Adur Ramirez de Aldaren taldeak 'Garenaren Arrazoia' diskoa kaleratu du / 23

SINADURAK

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK / 5

OIHANE ANDUEZA INILIRIZALDU / 5

EKAIN ALEGRE GIL / 22



Sakanaoptika
optometria • audiometria
hantahiztopia

Udaberrirako belaurrekorik politenak

San Juan kalea, 40 (Altsasu)
948 563 124 | www.optikasakana.com



Olatz Garde Mazkieran, Sakanako Mankomunitateko hondakin teknikaria.

"Gure kontsumoak gauza guztietan eragina dauka"

OLATZ GARDE MAZKIARAN SAKANAKO MANKOMUNITATEKO HONDAKIN TEKNIKARIA Hondakin Zerbitzuaren Utzubar EKOguneak 25 urte bete ditu apirilaren 26an. Funtsezkoa den azpiegitura hori bertatik bertara ezagutzeko aukera eman dio GUAIXEri arduradunak

Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

Berez udalek dute hondakinak bildu eta tratatzeko eskumena, derrigorrez eskaini behar duten zerbitzua da. Baina ibarreko udalek Sakanako Mankomunitatearen esku utzi dute egiteko hori. Mank-ek erabaki zuen bilketa bere gain hartzea eta hondakinaren tratamendua Nafarroako Hondakin Partzuergoaren esku uztea. Partzuergo horretan Nafarroako mankomunitate guztiak daude, Iruñekoa izan ezik.

Hondakinaren kudeaketan ezinbesteko elementua da Utzubar EKOgunea. 25. urteurreneko ospakizunik izanen den jakiterik ez badago ere, gonbidapena egin dago: "edozein etor daiteke. Zer dagoen ikusi nahi badu, azalduko diogu".

Zer da Utzubar EKOgunea?

Gauza asko da, eta dena hondakinekin erlazionatuta. Hondakin Zerbitzua nahiko hazi da azken urtetan, zerbitzu asko gehitu zaizkio. Zati bat Lakuntzan zegoen, beste bat Arbizun. Ikusi zen askoz hobe izanen zela dena toki berean izatea. Eta dena hemen batzaren ondorioz zerbitzua asko hobetu dela uste dut. Eta gure arteko elkarlana askoz ere errazagoa da.

Zergatik EKOgune kontzeptua?

Sakanan hondakinaren kudeaketa geroz eta hobe egiten ari gara, bai herritarrek, bai komertzioak, bai enpresak, denok. Eta horregatik Utzubar EKOgunea Arbizuko zaborteia baino askoz ere kontzeptu hobe iruditu zitzaigun. Zeren jendeak beti Arbizuko zabortegiaz hitz egiten du, baina hori planta honetan guztian gero eta zati txikiagoa du zabortegiak. Geroz eta gehiago birziklatzen eta berrerabiltzen da. Zabortegian urtetik urtera geroz eta hondakin gutxiago ari gara sartzen, eta geroz eta selekzio handiagoa

"SAKANAN HONDAKINEN KUDEAKETA GEROZ ETA HOBE EGITEN ARI GARA, DENOK"

egiten dugu. Gure nahia baita zabortegietara ahalik eta gutxien eramatea. Hori hemen, industria hondakin ez arriskutsuak sartzen ditugula. Hiri hondakinaren kasuan Tuterako zabortegira eramaten ditugu hondakinak. Hara ere geroz eta gutxiago dira eramaten ditugun hondakinak.

Zenbat pertsonen lan egiten dute bertan?

Askok, eta guk gehiago nahi genituzke. Kudeaketa lanean bi hezitzaile, teknikaria, zerbitzu arduraduna, konpost plantako arduraduna, edukiontziak eramaten, ekartzen, konpontzen edo paper prentsan langile bat edo bi aritzen dira. Plantan sei bat pertsona egoten gara. Bilketan hogeita hamar bat langile daude, denak ez dute aldi berean lan egiten.

Zein ordutegi duzue?

Plantan 07:00etatik 15:00etara gaude. Baina herritarrei harrera 09:00etatik aurrera egiten diegu, nahiz eta lehenago etortzen badira ere hartzen dugun. Bilketako langileek orokorrean goizez lan egiten dute. Gehienak 06:00etan hasten dira. Pandemia garaian ibilbideak pixka bat aldatu ziren eta denak aldi berean hasi beharrean lanerako sarrera orduak pixka bat mailakatu ziren. Horregatik beste batzuk 07:00etan hasten dira lanean. Lanaldiaren hasierako ordutegiaren arabera 13:00 edo 13:30eraino lan egiten dute. Baina kontuan izan behar da larunbatetan ere lan egiten dutela.

Garbigune mugikorrek eta Altsasuko garbiguneek barne?

Altsasun, orokorrean, bilketa zerbitzuko langile bat egoten da. Batzuetan hezitzailearen bat egoten da. Utzubar EKOguneko garbigunean hezitzaileek egiten dute harrera.

EKO GUNEKO ESPAZIOAK

Ze da lixibiatuen baltsa?

Hondakinak, orokorrean, beraiek daukaten hezetasunagatik edo, esaterako, euriarekin busti egiten direlako, likidoa sortzen dute. Horri lixibiatu esaten zaio. Likido hori ezin da edozein modu-



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



ra bota, tratamendua behar du bai ala bai. Esaterako, hondakin-degi azpian drainatze moduko bat dago. Jasotako likidoa punpatze etxolara doa eta handik baltsara. Hondakindegia baltsa baino beheiago dagoelako behar ditugu punpak. Baltsan likidoa dekantatu egiten da eta hori eginda, punpa bidez likidoa Laktuntzako araztegiara bideratzen dugu.

Hondakindegia zertarako balio du?

Azkeneko baliabidea da, hori da bere funtzioa. Hondakinaren kudeaketan onena hondakinik ez sortzea da. Baina behin sortuta ahalik eta gehien birziklatu behar da. Batzuetan gertatu izaten da zerbait birziklatu daitekeela, baina ez dela bideragarria, irtenbiderik ez dagoelako. Esate baterako, artilearen irtenbideak arazo asko sortzen ditu. Artilea oso isolatzaile ona da, badauzka hainbat aplikazio. Baina eraikitzerakoan artilerik ez badugu erabiltzen, hondakinak, artileak, ez du irtenbiderik eta, halakorik ez badu, ezin da birziklatu. Hau aipatzen dut, gu ere, herritar gisa, konturatu behar garela gure kontsumoak ere badaukala eragina gauza guztietan. Gure txikiak gauzak egin ditzakegu.

Zer botatzen duzue hondakindegira?

Gaur egun gehien iristen zaizkigun hondakinak galdaketa hareak dira, %95. Gainontzekoa poliesterrarekin lan egiten duen enpresa bateko zatiak edo labeetako zepak eta horrelako gauzak, batez ere metalurgiarekin lotutako hondakinak dira hondakindegian bukatzen dutenak. Duela urte batzuk enpresetatik hainbat hondakin nahastuak zituzten kontainerrak iristen ziren. Guk aspaldi esan genuen horrelakorik ez genuela onartzen. "Zuk ez baduzu zure enpresan bereizi, guk ez dugu gure hondakindegian hartuko". Eta legeak ere hala dio.

Baina?

Galdaketa harea horiek askotan berrerrabiltzen dituzte fundizioetan. Baina iristen da puntu bat ezin dena berrerrabili. Oraingoz honantz heldu dira. Baina ikeritza ari dira errepideak egiteko agregatu gisa erabiltzeko balio duten jakiteko. Kasu batzuetan horrelako aplikazioak egin izan dira. Hortxe dabilta. Batzuetan, beharbada, momentuan ez dago hondakinendako beste irtenbiderik zabartegi batera botatzea



Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuaren azpiegitura da Utzubar EKO gunea.

baino. Horrek ez du esan nahi hori denik guk eta enpresek nahi duguna. Zeren hondakinak zabartegi eramateak dirua balio du, geroz eta gehiago. Duela urte batzuk merkeagoa zen hondakindegia batera eramatea birziklatzea. Tamalez, oraindik gauza batzuekin gertatzen da. Baina kanonaren sorrerarekin eta hainbat tarifekin hori aldatzen ari da. Esan bezala, hondakindegia azkeneko baliabidea da.

Konpost planta badago ere.

Sakanan, atez atekoarekin, materia organikoa bereiztuta 2013an hasi ginen biltzen. Altsasun 2018an bosgarren edukiontzia jarri zen. Irurtzunen 2015ean jada zortzi auzokonpostagailu zeuden, baina 2022an bosgarren edukiontziarekin hasi ginen ere. Hasieran jasotakoa hemen deskargatzen zen eta pala batekin kamioi bat kargatu eta Mendigorriako biogas planta batera eramaten genuen. Ondoren nahikoa ospe txarra hartu duen Caparrosoko biogas plantara eramaten hasi ginen.

Nafarroako Hondakin Partzuergoari jakinarazi genion materia organikoa beste modu batera kudeatzea gustatuko litzaigukeela, biogas planta batera eramatea. Hemen egitea, zeren Caparrosko urrutiko dago eta iruditzen zitzaigun hainbeste kilometro ibiltzeak, gas isuriak eta beste, ez zuela zentzurik. Gainera, hemen kudeatutako organikoarekin baliozko zerbait egiten da: konpostoa. Baina lehen sartutakoa

han gelditzen zen. Gainera, ez zen konpostoa, digestatua baizik, garai hartan biogas planta bat erabiltzen zelako. Finantzaioa lortu zen eta hemen dugu konpost planta. Hona Sakanakoaz aparte, Mendialdeko mankomunitateak jasotako materia organikoa jasotzen da.

Materia organikoa konpost bihurtzea zenbat kostatzen da?

Nahiko alda daiteke, baina ontzeko, gutxienez, sei hilabete behar dira. Baratza garaia da eta dagoeneko jende asko etortzen ari zaigu konpost hartzera. Konpostoa egiten hasi ginenean bahetzeko makina txiki bat genuen, nahiko lan guztia bahetzeko eta, horregatik, eraman zitezkeen konpost kopurua mugatzen genuen. Makina handia dugu orain eta horrekin ez daukagu inolako arazorik. Jendea urte guztian zehar etor daiteke eta nahi duena eraman dezake. Hori bai, bakarren batek hainbat kamioikada bat nahiko balu, alde aurretik adostu beharko genuke, konpostoa dagoen edo ez jakiteko. Guretako, konpostoa hartzerakoan, herritarrek dute lehentasuna.

Transferentzia gunea zer da?

Errefusa eta ontzi arinak partzuergoaren bide kudeatzen dugu. Gure kamioi batek, ez dakit, 6.000 kilo errefusa hartzen ditu. Karga horrekin Tuterako Culebrete ra joatea erokeria da. Zer egiten dugu? Jasotakoa transferentzia guneko goiko partera eramaten dugu, han deskargatzen du eta txurrutel moduko baten bidez

azpiko aldean dagoen kamioi gabarra batera erortzen dira errefusa edo ontzi arinak. Gabarra horrek badauka zoru mugikorra deitutako sistema bat dauka eta hondakinak aurreraka bidaltzen joaten da. Behin hori beteta, kamioiari lotu eta Tuterara eramaten da. Beraz, 6.000 kilorekin joan beharrean, normalean, 22.000 kilo eramaten dira eta, horrela, askoz efizienterago da bidaia, emisio gutxiago sortzen dituzun modu horretan. Ontzi arinendako bi kai ditugu, bestea errefusarendako. Batzuetan filmarendako ere erabiltzen dugu.

Errefusarekin bezala, gauza bera gertatzen da ontzi arinekin. Baina gabarretan ez dira hainbeste kilo sartzen, ontzi arinek askoz bolumen handiagoa hartzen dutelako; normalean, 3.000 eta 5.000 kilo arteko karga eramaten du Azkoiengo plantara. Han dena

"ONENA HONDAKINIK EZ SORTZEA DA. BEHIN SORTUTA AHALIK ETA GEHIEN BIRZIKLATU BEHAR DA"

"HONDAKINAK ZABORTEGIRA ERAMATEAK DIRUA BALIO DU, GEROZ ETA GEHIAGO"

materialaren arabera bereizi egiten dute. Transferentzia gunea Mendialdea, Araxes eta Sakanako mankomunitateek erabiltzen dugu.

Papera eta kartoiarekin zer?

Horiek deskargatzeko pabiloi bat daukagu. Han zinta batera bulkatzen dugu, prentsatzeko makinatik pasa eta papera eta kartoiarekin fardoak egiten ditugu. Horiek beste pabiloi batean gordetzen ditugu. Gabarra bat betetzeko adina dugunean kudeatzaileari hots egin eta kamioia bidaltzen digute. Hemen kargatu eta, normalean, Atarrabiako paper fabrikara eramaten dute. Han gauza asko egiten dituzte, baina, esaterako, gu joan ginenean komuneko paperaren tutuak egiten ari ziren guk emandako papera eta kartoiarekin.

Egur tokia ere badago.

Ez dakit zenbat leiho, ate eta egur sortzen den. Egurrarekin pixka bat denetarik daukagu. Alde komertzialagoa daukagu, eta horretarako tasa bat daukagu. Bestetik, berrerrabili daitzekin altzariak Emausko Trapuketarien bidez kudeatzen ditugu, bestela egurretara doa. Guk ere kudeatzen dugu egur hori, Gipuzkoako konpost egiteko, baizik eta aglomeratuak eta halakoak egiteko. Altsasuko garbigunean ere egurrarendako edukiontzia dago eta gauza bera egiten da.

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Ateen erakusketa ederra prest duzue.

Gainera nahiko arrakasta dauka. Jendea etorri izan zaigu negutegiak egiteko leiho eta ate bila. Bestela, inork ez baditu hartzen, kristala kendu beharra daukagu eta gero egurra egurrarekin uzten dugu. Baina hori egin baino lehen saiatzen gara berrerabiltzen ahal diren gauza gehienak. Eta askotan norbaitek horrelako zerbait elkartzekotan eta pentsatzen dugunean beharbada norbaitek erabili dezakeela, aparte jaritzen dugu jendeak ikusteko. Leihoak eta ateak nahiko eraman dituzte.

Eta yurta itxurako hori, zer da?

Hau betetako amets bat da, berrerabilpena gela da. Bisita asko dauzkagu, jende asko etortzen da berrerabiltzeko zerbait daukagun ikusteko. Sortu nahi genuen berrerabilpen gela bat, aldi berean, jendeari ere zerbait irakasteko. Esaterako, yurtaren oinarria norbaitek botatuko gurpilekin egin zen. Zoruko isolamendua birziklatutako oihalekin egina dago eta pareta eta sabaietakoa Altsasuko artilearekin egindako isolatzailea da. Oso polita izateaz aparte, iruditzen zitzaigun oso adibide ona dela jendeari erakusteko: "begira, egia da, gauzak berrerabil daitezke eta birziklatu daitezke. Zeren badago jendea esaten dudana ez dela hori egiten. Eta hori ez da egia.

Zer dago berrerabilpen gelan?

Pixka bat denetarik. Emausko Trapuketarien bitartez kudeatzen ditugu horrelako gauza guztiak: liburuak, arropa, altzariak... Baina beraiek eraman baino lehen ikusgai jarri eta jendeak Sakanan berrerabil badezakete, guretako hobe. Zeren beraiek ere batzuetan gauza gehiegi dauzkate eta irtenbidea eman behar diete. Hori da gela honen ideia, berrerabiltzea eta hondakinekin zerikusia duten hainbat gauza erakustea. Bide batez, ikastetxeetako eta beste-lako bisitak dauzkagunean arrakasta handia izaten du. Hemen jolasak daude, baina, gainera, tokia nahiko bitxia da.

Garbigunea dago?

Bai, garbigune finko bat dago. Nik uste dut jendeak askok ez

"BARATZA GARAIA DA ETA DAGOENEO JENDE ASKO ETORTZEN ARI ZAIGU KONPOSTA HARTZERA"

dakiela. Altsasun badago bat, Irurtzunen beste bat egingo da eta garbiguneen sarean Arbizukoa hau da zaharrena. Hemen ohiko garbigune bat daukagu. Gutxi gorabehera denetarik ekar daitete etxeetatik, hori bai, etxeetan sortutako hondakinendako da. Eta bereizita ekarri behar da. Guk lagundu diezaiekegu esanez gauza bakoitza non bota. Jende asko etortzen da, erabiltzaile kopuru handia dago, bai.

Konponketa txokoa?

Norbaitek zerbait konpondu nahiko balu hor erremintak eta hala-koak ditu.

Artilearekin zer egiten duzue?

Guri ekartzen digutena Artaxoako konpost plantara eramaten ari gara. Balorizatzen dugu, baina pena da hainbat erabilera argi dituelako. Artilea, berez, ez da hiri hondakina. Baina, ahal dugun heinean, abeltzainei artilearen edo siloko plastikoaren kudeaketa erraztu ahal baldin badiegu, hori aparteko tasen bitartez egiten dugu. Hondakinen kudeatzailer bat opatu dugu eta horren bitartez egiten ari gara. Baina esandakoa, birziklatzea ez da bakarrik birziklagarria izatea, baizik eta irtenbide bat, merkatu bat izatea. Gaur egun egia esaten badizut, bere garaian esango dizut orain dela urte batzuk agian etortzen zitzaigun enpresaren batetik hola kontainer bat, hainbat gauza nahastuta.

Hasieran jasotzen zen tona kopurua eta gaur egungoak ez du zerikusirik, ezta?

Ez. Kontuan hartzekoa da sortzen dugun hondakin kopuruak ekonomiarekin oso erlazio handia du; gaizki badoa kopurua jaisten da, ondo badoa, igo egiten da. Geroz eta gehiago bereizten dugu, baina ez dugu geroz eta gutxiago sortzen. Esango nuke orain dela hamar urte baino zertxobait gehiago sortu dugula. Egia da errefusa kopurua asko gutxitu dela, baina geroz eta gauza gehiago birziklatzen eta berrerabiltzen ditugulako.

Lanketa oso handia dago egiteko hondakinen murrizketaren inguruan eta saiatzen hasi gara. Joan zen urtean zirkulu ekonomia-aren gida atera genuen, gomendioak emateko. Oso operazio handia da, eta oso geroz eta zailagoa, burokratikoki, irtenbideak bilatzerako momentuan... Askoz hobe izango litzateke ekonomia, ingurumen eta alde guztietatik, hondakin gutxiago sortzea.





ASTEKOA

OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU

Esatetik egitura

Gona gorri-gorria, zazpi jostunek josia,
Goni gorre-gorrei, zozpu justenok jasoa.
Berriz ere maiteko dio gure aitak amari,
gure aitak amari,
gune gurra ikurri... Dio abestiak.

Zeinen arraroa litzateke irakurtzea bokalak lekuz kanpo egonda! Izan ere, lekua garrantzitsua da. Garrantzitsua, esanguratsua, funtzionala, antolatzailea eta egituratzailea.

Hizkuntzaren kasuan, esanahia osotara aldatzen da, edota esanahia galdu ere. Ezinezkoa litzateke idatzi bat ulertzea bokalak lekuz aldatuta, alegia.

Familiaren kasuan ere halaxe gertatzen da. Familiako kide bakoitzaren lekua garrantzitsua da, esanguratsua, funtzionala, antolatzailea eta egituratzailea. Aita, aita dela, ama, ama eta umeak ume direla esatea txotxolokeria bat dela dirudi. Baina gaur egun hain garbi ez dagoela esatera ausartuko nintzateke.

Gurasoak, gurasoen eta umeak umeen lekuan egoteak zera esan nahi du: umeen ardura garrantzitsua eta ia bakarra jolastea

FAMILIAKO KIDE BAKOITZAREN LEKUA GARRANTZITSUA DA, ESANGURATSUA ETA EGITURATZAILEA

zera litzateke: ez direla arduratu behar zein arropa jantzi behar duten, ez dutela erabaki behar (beti) zer jan behar duten, ez dela beraien ardura oporretarako lekua aukeratzea, ezta arratsaldeetan hona edo hara joatea erabakitzea...

Laburbilduz, umeen ardura jolastea dela. Helduoi dagokigu hori erraztea eta umei noizbehinka jostailuak aukeratzea.

Arropa hau ez, bestea jarri nahi duela, zapata hauek ez, besteak erosi nahi dituela, urdaiazpikoa ez, txokolata merendatu nahi duela... Hori kudeatzea helduon lanik zailenetakoa dela esatera ausartuko nintzateke. Gatazkak, tira birak... Baina are gehiago ere esango nuke, umeek behin ulertzen dutenean ez dutela hainbesteko erabakirik hartu behar, lasaitu egiten dira. Bestela, letrekin bezala, ume batzuk aita direla uste dute, beste batzuk amaren bikotea, besteak, anaiaren ama... Eta horrelako nahaste-borrasteak suertatzen dira boterearen lekua argi eta garbi ez badago etxean.

Hala eta guztiz ere, gauza bat esatea da, eta bestea egitea... Besta bot egotea ate bistu bet egatia.

HARA ZER DIEN

Boluntarioa, gizarte aldaketarako eragilea

SAKANAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

Egia ote da ezin duzula ezer aldatu? Benetan uste duzu ezin duzula deus lortu zure ekintzekin? Zenbatetan esan dizkiogu honelakoak geure buruari? "Nik egiten dudanak ez du ezer aldatuko", "ez dut ezertarako astirik"...

Aldaketaren parte izan zaitezkeela argi dugu Gizarte Zerbitzuetan lan egiten dugunok. Nola? Boluntario lanetan! Boluntariotza indibidualismoaren aurkako antidotoa da.

Pertsona bakoitzak motibazio desberdinak ditu boluntario izateko, eta boluntario-ekintza bakoitzak helburu desberdinak. Hala ere, pertsonak ekintza solidarioen alde egitera bultzatzen dituzten arrazoen artean, justizia eta besteei laguntzeko motibazio desinteresatuak aurkitzen ditugu nagusiki. Boluntario izatea pertsona bakoitzak modu askean

aukeratzen duen bidea da, gizartearekiko erantzukizuna erakusten duena.

Boluntariotza herritarrek gizarte-aldaketan parte hartzeko tresna bat da. Eragin positiboa sortzen da besteen bizitzan, ingurune herribilean zein beste herrialdeen kausak defendatzen dituzten ekimenen bidez. Ezin dugu ahaztu helburu asko lortu direla gizartean eta ingurumenean, herritarren mugimenduen ekintzari esker.

Borondatezkoa izateak errealitatea hobeto ezagutzera eta ulertzera bultzatzen du, baita oso jarrera baliotsuak hartzerare: pentsamendu kritiko eta globala izatera, besteen arazoen aurrean sentibilizatzera, munduaren ikuspegi konprometitu eta solidarioa adieraztera... Beste gaitasun batzuk lortzen ere laguntzen du, hala nola proiektuak eta taldean lan

egiteko gaitasuna, pertsonak koordinatzeko gaitasuna, negoziatzeko, arazoak konpontzeko, eta abar.

Boluntariotza, funtsezkoa da herritartasun kritiko bat eraikitzeko: kontzientzia sozial handiagoa duena, pobreziaaren aurkako borrokan gizarte justizia eta aldaketa soziala helburu goren dituen.

Gizarte Zerbitzuen printzipioetariko bat boluntariotza sustatzea da, hau da, herritarren lankidetzara solidarioa bultzatzea. Zeregin horrekin batera, nahitaezkoa da lan-sare horretan parte hartu nahi duten pertsonak prestatzea. Lan-sarea zenbait ekintzekin lotuta dago, baita zenbait herritar sektoreekin ere: haur eta nerabeekin, hirugarren adinarekin, gizarteratzearekin...

Boluntario bezala aritu nahi baduzu, ez izan zalantzarik, eta zure eskualdeko Gizarte Zerbitzuarekin harremanetan jar zaitez!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436

Ainhoa Etxebarria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Bakaikuarrek maiatza zutitzeko azken ahalegina egiten. ARTXIBOA

Maiatzen Historia oihartzunak

Atzera ere, hainbat etxarriar, bakaikuar, iturmendiar eta ziordiarrek indarrak batu eta maiatzak jasoko dituzte maiatzaren lehenean. Baina agiritan jaso dago ibarreko beste herri batzuetan ere maiatzak zutitzeko ohitura zegoela

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Europako hainbat herritan dago horrelako ohitura. Sakanan lau herri horietan ohiturari eusten diote, baina beste zenbaitetan ere izan zen zuhaitzak zutitzeko ohitura hori. Hala jaso du Rafael Carasatorre Vidaurre historia ikerlariak bere *Documenta Navarra* blogean. Carasatorrek artxiboetan jasotako dokumentuak daude blogean. Eta horietan begiratu, aipatutako ibarreko lau herriez aparte beste lauetan ere jartzen zen maiatza. Gainera, ikerlari etxarriarrak bere sorlekuko maiatza jasotzeari buruzko agiriak ere azaleratu ditu.

Hiriberri Arakil

Ikerlari etxarriarrak azaleratu dituen agiritan Hiriberri Arakilgo maiatzari erreferentzia egiten dion dokumentu zaharrena 1.567. urtekoa da. Herriko agintariekin egindako kontuetan jaso zenez, "herri guztiaren

aginduz menditik maiatza ekarri zen eta 11 tarja (txanpon mota) gastatu ziren". Ordainketa bera egin zuten hurrengo urtean. Hiriberriko Kontzejuko buru edo juratu Pedro Çubiria eta Joanes de Miguel Periz ziren. Maiatza eraman zenean lau erreale pagatu zituzten. Antza, maiatza zubitxoaren ondora eraman zuten.

Bi urte geroago lau eta erdi ordaindu zituzten. Ordainka zertarako ere argitzen dute 1609ko Hiriberri Arakilgo kontuek: ardo pegar edo kantaro bat. 1640an ardo kopuru beragatik sei erreale eta tarja bat ordaindu zituzten. Hurrengo urtean, nork daki ardo

"HERRI GUZTIAREN AGINDUZ MENDITIK MAIATZA EKARRI ETA 11 TARJA GASTATU ZIREN 1567AN"

eskasiagatik-edo, zortzi erreale ordaindu zituzten. 1653ko kontuetan ardoagatik egindako ordainketaz aparte, gazteei bi ardo erreale eman zizkieten.

Herritar gehiago izanen ziren, edo kinkur handiagoa zuten, 1666an hiriberriarrek maiatza jasotzean pegar eta erdi edan baitzuten. Baliteke kontzejaren ekonomiak hobera egitea. 1676an bi pegar ardo edan zituzten. Azkenik, 1690an ardo pedar bakarragatik ordaindu zuen kontzejua.

Ihabar

Ikerlari etxarriarrak blogean argitaratutako agiritan baheketan eginda, ihebardarrek maiatza 1617an jaso zutelaren ageri da. Ardo pegar bat edan zuten eta harengatik kontzejua hiru erreale eta erdi pagatu zituen. Joanes de Aldava eta Joanes de Irisarri ziren Ihabarko Kontzejuko juratuak. 1620an, maiatza herrira

eraman zuten egunean, ardo pegar eta erdi edan zuten ihebardarrek. Harengatik Ihabarko Kontzejua 7 erreale, tarja bat eta 8 kornado pagatu zituen. Ihabarko Kontzejuko juratuak Pedro de Yabar de Oliba eta Miguel de Huarte ziren.

Dauden 1681 urtera arteko kontuetan ageri denez, maiatza jaso zen egunetan ardo pegar bat edan zuten. Ordainketak lau erreale izatetik bost izatera pasa ziren. Aldaketa 1682an dago, orduan 20 pinta ardo edan zituzten eta. Ihabarko Kontzejua hargatik zazpi erreale eta erdi pagatu zituen. Hurrengo erreferentzietan maiatza jasotzeko egunean ardo pegarra hustu zutela jasotzen da Ihabarko diru kontu zaharretan. Langintza horri buruzko atzeneko erreferentzia blogean 1753koa da.

Irañeta

Carasatorreren bloga bahetuta, Irañetan maiatza jasotzeari buruzko hiru data agertu dira. Aurrenekoa 1611koa. Maiatza jarri zen egunean ardo pegarra edan zuten irintarrek eta kontzejua erreale ordaindu zuen harengatik. 1691ko Irañetako kontuetan edari eta diru kopuru bera ageri dira. Atzeneko erre-

"ORDAINDUKO EZ BALITZAI E MAIATZA EKARTZEARI UTZI, ETA OSPATZEARI UTZIKO LIOKETE"

ferentzia 1724 urtekoa da. Irintar gizonezko gazteek maiatza herrira eraman zutenean Irañetako Kontzejua ardo pegar erdia eman zien. Eta jaso zenean kontzejua bi ardo pegar eta erdi banatu zituela ageri da kontu liburuetan.

Uharte Arakil

Ikerlari etxarriarraren gure baheketan Uharte Arakilgo maiatzari erreferentzia egiten dioten bi data opatu ditugu. Lehendabizikoa 1581eko kontu liburuakoa da. Han jaso zenez, maiatza ekartzera joan ziren gizonezko ubertear gazteei udalak ardo pegar erdia eman zien San Migel egunean (maiatzak 8) eta hark 10 tarja balio zituen. Eta, ondoren, maiatza ekarri zutenean pegar bat ardo eman zien, 14 tarja balio zituenak. 1582an, berriz, Uharte Arakilgo Udalak maiatza ekarri zutenei bi pegar ardo eman zien, 16 tarja balio izan zutenak.

Etxarri Aranatz

Sorterriko maiatzari buruzko erreferentziak ere jaso ditu Carasatorrek bere blogean. Aurrenekoa 1577ko ilbeltzaren 31koa da: "Pedro de Lacunza, gauez, Etxarri Aranatzko alkatearen etxera joan zen, maiatza dagoen hiribilduko plazan. Juanes de Lizarraga etxarriarra ere maiatza dagoen plazarantz joan zen".

Etxarri Aranatzko Udalak Juanes de Miguel de Echarriri bi dukat ordaindu zizkion maiatza ekartzeagatik 1587an. 1591ko kontuetan ere bi dukateko ordainketa jaso zen. 1606an eta 1607an "ohikoa zen moduan, maiatza ekarri eta jartzeko lanagatik udalak herriko gizonezko gazteei bi dukat ordaindu zien".

1612. urtean "duten poz handia eta lanagatik", Etxarri Aranatzko Udalak bi dukat ordaindu zien maiatza ekarri zuten gizonezko gazteei. "Mendialdeko hiribildu on eta tokietan ohitura hori dago. Ordainduko ez balitzaie maiatza ekartzeari utziko liokete, eta ospatzeari utziko lioke poz handia duen jendeak". 1619an, berriz, Domingo Lopezek esan zuenez, "usadio eta ohituraren arabera, poz handiarekin gizonezko gazteek maiatza ekartzen dute maiatzeko lehen egunean" eta bi dukat ordaintzen zaie. 80 urte zituen Miguel Lazcozek eta Miguel Martinezek aurrekoak esandakoa berretsi zuten.



Parlamentuko Industria Batzordekoak Sunsundeguin izan ziren ilbeltzaren 17an.

Sunsundeguirendako 6 milioira arteko mailegua onartuta

Nafarroako Parlamentuak Foru Lege bat onartu zuen atzo Sodenak mailegua eman ahal izateko

ALTSASU

Abenduaren 21ean egin bezala, Nafarroako Parlamentuak Foru Legea onartu zuen. Haren bidez baimena ematen baitzaio Sodena enpresa publikoari 6 milioi euro arteko mailegu bat emateko Sunsundegui enpresari. Orduan lau milioi euro arteko mailegua. Sodenak dagoeneko 6,4 milioi euroko mailegua emana dio Altsasuko enpresari. Baina beste mailegu bat emateko Nafarroako Parlamentuaren oniritzia behar zuen, legediak ezarritako mugak gainditzen duelako. Izan ere, inongo pertsona fisiko edo juridiko ezin izanen da izan Aurrekontuei buruzko Foru Legean ezarritako gehieneko arrisku biziaren ehuneko 5etik gorako zenbatekoa duten maileguen onuradun. Mailegu berriak ezarritako muga gainditzen du.

Gobernua babesten duten alderdi eta koalizioek "interes

orokorreko gaia" dela iritzita justifikatu du emandako abala, finantzaketa publikoa Sunsundegui eta Volvo automobilgintzako taldeak sinatutako kontratua gauzatzea bermatzera bideratuta baitago. Helburuak lortzea Sunsundeguiaren erantzunaren arabera izanen da. Izan ere, Altsasuko lantegiaren balia bideak bikoiztu behar dira (408 langiletik 720ra), bai ekoizpen mailan (urteko 783 unitate izango lirake), bai fakturazio mailan (ekitaldiko 140 milioira iritsiko lirake).

Aldeko botoa eman zuten PSNk, EH Bilduk, Geroa Baik eta Zurekinek. UPN eta PPN abstenitu egin ziren. Biek ere ez zuten kreditu berri horren atzean dagoen motibazioa zalantzan jarri, baina forma kontuekin lotutakoa izan zen haien abstentzioa. Azkenik, Voxek kontrako botoa eman zuen.

Mustutzea besterik ez zaie falta

Kontzeju etxea eta elkarte hartzen dituen eraikineko teilatuko lanak despedituta daude. Teilatuan zeuden itajuak konpondu dituzte, baita beste lan batzuk egin ere. Bestalde, Ekaiko Kontzejuak baso itxurak berritzeko lanen azken fasea egin nahi du

Alfredo Alvaro Igoa EKA

Berri itxura du elizaren aldamean, San Andres kaleko 15. zenbakidun eraikinak. Garai batean herriko eskola hartu zuen eraikina gaur egun Ekaiko kontzeju etxea eta elkarte hartzen ditu. Eraikineko teilatua itajurak zituen eta barruko "sabai aizuak denetariko koloreak zituena", azaldu digu Patxi Uhartek Garro kontzeju buruak. Ekaiko Kontzejuak eskaera egin eta Nafarroako Gobernuak Tokiko Azpiegitura plan berriaren barruan sartu zituen lanak, baita dirulaguntza onartu ere. Bi hilabeteko obren ondoren gremioetako langileek lanak despeditu dituzte. "Ziurtagiria jasotzea eta auzolanean eraikina garbitzea, besterik ez da falta". Horiek egin da, lanak mustuko dituztela jakinarazi du kontzeju buruak.

Uhartek azaldu duenez, "teildurarekin batera elektrizitate azpiegitura berritu behar genuen. Baina teila zaharrak kentzen hasi eta ikusi genuen soliboak pipiak jota zeudela. Haien kontrako tratamendua ematea erabaki genuen. Eta, aldamiok jarrita zeudenez, eraikina margotzea ere erabaki genuen". Azken lan horiek hasiera batean 40.000 eurokoa zen aurrekontua handitzea ekarri du, "oraindik



Ekaiko kontzeju etxea eta elkarte hartzen dituen eraikina.

ez zaizkigu fakturak iritsi eta ez dakigu zenbat haziko den".

Lan gehiago

Ekaik bere baso guztia bargan du. Eta han herriko abeltzainak azienda sartzten du eta, horretarako, baso itxiturek ongi egon behar dute. Horregatik, Ekaiko Kontzejuak baso itxurak ongi jartzeko lau epeko plana prestatu eta gauzatzen ari da. 2019an basoaren eta soroen eta herriaren arteko zatian jarri zuten itxitura berria. 2021ean Ollarango Itzarbe herriko mugaren txanda izan

zen. Joan zen urtean Urritzolako mugako itxitura hobetu zuten eta, gauzak ongi, aurretik Zuhatzuko mugako itxitura berrituko du kontzejuak. Horretarako, abeltzaintza azpiegiturarako Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza deialdian eskaera aurkeztu du.

Azkenik, aspalditik aurreragoan dagoen Ganadero etxean esku hartuko du Arakilgo Udalak. "Orain udalak hesituta dauka, eta teildadura kendu eta barrutik hustu eginen dute", azaldu du Uhartek.

... eta askoz gehiago eta asko zuretzat pentsatuta.

Gure ogiak ezagutzen dituzu, orain **gozotegia** deskubritu

1964-1967

Amaya

OKINDEGIA

678 323 403
• Iruna Hiribidea, 48 •

948 468 026
• Zumalakarregi Plaza, 3 •

670 389 017
• San Juan Kalea, 50 •

948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19 •

ALTSASU

Lanbide Heziketako ikasleen ikasketa zerbitzu lanak

Ikasitakoa komunitatearen aldeko onurako lanetan praktikan jartzea. Horixe da ikasketa zerbitzua. Eta halaxe aritu dira Lanbide Heziketako sei ikasle Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoitzan

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Atzeneko bi asteazkenetan Sakanako Lanbide Heziketako (LH) mantentze lan elektromekanikoko lehen mailako sei ikasle Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatearen egoitzan egon dira, Altsasuko Garbitoki eraikinean. Alex Saralegi Sagastibelza, Amets Satrustegi Bakaikoa, Aimar Rodriguez Lorea, Maren Bergara Nazabal, Peru Urteaga Leñena eta Aimar Igoa Aldasoro dira ikasle horiek,

eta bulegoan "lan eta lan" aritu ziren.

Azaldu digutenez, "ordenagailuen, telefonoen eta entxufeen kableak eta kanaletak jartzen aritu gara". Zergatik egin duten lan hori galdetuta, azaldu digute bulego batzuetako banaketa aldatu behar zenez, konexioak eta entxufeak ere aldatu beharra zegoela. "Kanaleten bidez entxufeak batetik bestera aldatu ditugu". Aurreko lan saioaren ondoren, "ostegun edo ostiralean hots egin

ziguten etortzeko eskatuz, zerbait gaizki zebilelako". Hura konponduta, herenegun despeditu zituzten egitekoak.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateko langileekin harremanetan izan dira, eta "gustura" egon dela adierazi du seikoteak. Haiek bulegoetan eskatutako aldaketak egin dituzte ikasleek. Horretarako, jakina, une batzuetan argindarra kendu behar izan zuten bulegoetan, entxufeak lineako kableekin konektatzerakoan. Gar-



Peru Urteaga Leñena (etzanda), Amets Satrustegi Bakaikoa, Aimar Rodriguez Lorea, Maren Bergara

"Errealitatearekin harreman bat da"

MIGUEL MORENO IGOA ETA JOAQUIN CORCUERA GIL LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEAK

Elektromekanika eta mantentze lana eta goi mailako mekatronika, horiek irakasten dituzte, hurrenez hurren, Miguel Moreno Igoa eta Joaquin Corcuera Gilek Sakanako Lanbide Heziketa (LH) institutuan. Halako praktikek ikasketa prozesuan duten presentziak azalpenak eman dituzte. Aldi berean, gogorarazi dute ikastetxean ate irekien jardunaldia dutela larunbat goizean eta 11:30etik aurrera ziklo eskaintzaren aurkezpena eta zentrorra bisita gidatua egingen dutela.

Zein da zure egitekoa halako praktiketarako?

Miguel. Artzainak bezalakoak izan behar dugu. Pixka bat atzean egon behar dugu. Guk prestatzen ditugu materialak, erosi, eta zer egin beharko duten esan diegu. Eta beraiek gidatu. Azkenean, beraiek gai dira gauzak egiteko, gidatu eta beraiekin egin dezatela lana.

Halakoak planifikatzea eta aurrera eramateko prozesua nolako da?

Joaquin. Gu udalarekin harremanetan jarri ginen. Guk egiteko moduko lanen bat sortuz gero gaztigitzeko eskatu genion. Eta hots egin ziguten esanez Garbitoki



"AZKENEAN, BERAIEK GAI DIRA GAUZAK EGITEKO, GUK GIDATU ETA BERAIEKIN EGIN DEZATELA LANA"

MIGUEL MORENO IGOA

eraikinean bi bulego aldatu nahi zituztela. Entxufeak eta ordenagailuen hartuneak aldatzera etorri gara. Ez da lan asko, praktika baten modukoa da. Normalean klasean, tallerrean, egiten dugu praktika. Baina hau askoz hobea da. Ikasleak ateratzen dira eta benetako lan bat ikusten dute.

"HAU ASKOZ HOBEA DA. IKASLEAK ATERATZEN DIRA ETA BENETAKO LAN BAT IKUSTEN DUTE"

JOAQUIN CORCUERA GIL

Bi irakasle zaudete hemen, normalean hala izaten da?

M. Ez, normalean irakasle bat egoten da beraiekin. Nirekin teoria ikasten dutenez, eta Joaquinekin praktika, lan hau bien artean egitea pentsatu genuen. Nik aurretik materialak zenbat balio duen begiratzeko eta aurrekontu batzuk egitea

eskatu nien, lan orduak zenbat izanen ziren. Gutxi gorabehera hori prestatu zuten. Biok beraien ondoan gaude instalazioetan, ongi ateratzeko.

Zer ekarpen egiten dizu irakasle bezala ikastetxetik kanpo ateratzeko?

J. Haiendako oso aberasgarria da, oso polita. Eta, gainera, pizgarria da. Haiek klasean egon ordez ateratzen dira. Alde batetik, hori gustatzen zaie. Bestetik, benetako lan bat da. Ikusten dute ez dela institutuko panel batean dena muntatu eta egiten den praktika bat. Benetako lan bat da: kendu behar da argindarra, gero piztu ongi funtzionatzen duen ikusteko. Aurrekoan ez zuen telefonoak ongi funtzionatzen eta konpontzera itzuli behar izan genuen. Nolako lana den ikusten dute. Miguelekin aurrekontua egin dute, zenbat ordu kostatuko den... Errealitatearekin harreman bat da. Hau ikasketa zerbitzua da. Alde batetik, haiek asko ikasten dute asko eta, beste aldetik, gizarteari zerbitzu bat ematen diote. Balio du.

Hona lanera etorri direnerako, beharrezko jakintza badute?

M. Bai. Azkenean, guk klasean lantzen ditugun gauzak dira. Behar bada gauzaren bat momentuan bertan azaldu diegu. Esaterako, nola konektatu RJ45 (ordenagailu sare lokalak konektatzeko erabiltzen diren konektoreak). Hori oraindik



ra Nazabal, Alex Saralegi Sagastibeltza eta Aimar Igoa Aldasoro ikasleak.

ez dugu eman. Ez da lan zaila eta lau gauza esanda problemarik gabe egitea lortzen dute.

Praktikak ikasketa prozesuan eragina dute?

J. Bai. Motibagarria izatea espero dugu. Gustatzen zaiela ematen du.

Ikasketa zerbitzu praktikak askotan egiten dituzte?

M. Ez. Hau egin dugun lehenengoa da. Gustatuko litzaiguke gehiago egitea, baina, momentuz... Ikastetxean ere proiektu txikiak egiten ditugu, kalera ateratzen ez direnak. Esaterako, neumatika eta elektrizitate moduluarekin maketa bat egin genuen. Hiru zilindroko instalazio bat zen, elektrobabula eta rele batzuekin sekuentzia instalazio bat egin genuen. Hartan latak sartzen genituen, haiek txikitzen zituen eta ontzi batera bota, birziklatzeko. Ez diote komunitateari zerbitzurik ematen, baina ikasteko polita da.

J. Iortia kultur gunearen gainean eguzki plaken instalazioa dago. Orain ez du funtzionatzen. Joan zen ikasturtean ikustera joan

ginen. Aurten joan gara, eta beste talde batekin ikustera joanen gara.

Ikasleek enpresetan praktikak egiteko hitzarmenak ere badituzte?

M. Aurten, gainera, dual sistema sartu da. Horrek esan nahi du lehenengo mailatik enpresetara praktikak egitera joaten direla. Aurtengoa proba modukoa izanen da, zeren lehenik bi aste izan dira, gero moztu eta, azkenik, beste aste bat egin dute. Onena litzateke denak bat egitea eta horiek ikasturte akaberan sartzea. Ongi etortzen da. Dena teorikoa izan beharrean, eta dena institutuan, ikus dezatela nolakoa den lan mundua, eta zer topatu behar duten.

Praktikak egiteagatik kobratzen dute?

J. Dual ikasketa mota desberdinak daude, eta horren arabera, kobratzen da ala ez. Guztietan ez da ordaintzen. Ikasle hauena ez da. Kobratzeko enpresak, Hezkuntza Departamentuak eta abarrek adostu behar dute.

bitoki eraikinera estreinakoz joateko bezperan ikasgelan beharrezkoa izanen zuten materialen zerrenda egin zuten, irakaslearekin "aurrekontua egiten ere ikasi genuen". Lan eskuaren kostua ere kalkulatu zuten. "esaterako, 30 euro orduko jarri genuen". Zerrendatutako materiala irakasleek erosi zuten.

Praktikak eta lan merkatua

Garbitoki eraikineko praktikez aparte, ikasleak jakinarazi digutenez, "ikastetxean proiektuak egiten ditugu". Horietaz aparte, "gela baten muntatzea egin genuen. Hemengo lan bera, kanaletak jarri eta entxufeak mugitu". Enpresetan ere praktikak eginak dira, bakoitza enpresa batean hiru astez lan egin du, "oso gustura" aritu dira. Haiek ez dute praktiken gatik kobratu, baina badakite soldadurako erdi mailako ziklokoek baietz (ikasketa dualaren arabera da).

Lanbide Heziketako mantentze lan elektromekaniko ikasketak zergatik aukeratu dituzten galdetuta, esan digutenez, "interessagarria da guztiaz zerbait ezagutzea, gero etxean denetarik egiteko. Momentua egiteko, ez duzu itxaron behar. Denetarik egiten dakizu" esan du Marenek. Ikasketak horiek eginda, "sortzen diren arazoak, gutxi gorabehera, nola konpondu badakizu. Ideia baduzu", azaldu digu Aimarrek. Peruk gaineratu duenez, "ikasketak honek lan irtenbide asko ditu". Horri begirajarri da Aimar: "mantentze lan asko dago Sakanan, fabrika guztietan. Lan polita da, eta denetarik pixka bat ikasten duzu". Alexek gaineratu duenez, "bizitzarako ere balio du denetatik pixka bat jakiteak".

Ametsek ikaskide guztiak esandakoak berretsi ditu.

Haiek ikasten duten lanbidean Sakanan lan aukerarik ba ote dagoen jakin nahi izan dugu: "bai, leku guztietan". Ibarreko hainbat enpresa zerrendatu dituzte. Haiena erdi mailako zikloa da, bi urteko ikasketak. Goi mailako zikloa ere badago. Eta guztiek ikasketa horiek egiten dituztela jakinarazi dute. "Beharrezkoa da, ia enpresa guztietan eskatzen dute goi mailako zikloa izatea".

Garbitoki eraikinera iritsi ginenean seikoteari bi kable konektatzea besterik ez zitzaien falta. Baina atsedena ere hartu beharra dago eta gosaltzera taberna batera atera ziren. Ikastetxean "hiru ordu ikasten, gosaltu eta beste hiru orduz aritzen gara ikasten", argitu digute. Gosaltzera joan aurretik "egindako lanarekin gustura gaude, ondo gelditu da", esan digute.

Praktika gehiago

Horiek ez dira izan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hartu dituen aurreneko praktiketako ikasleak. Arantxa Erbiti Beloki koordinatzaileak azaldu duenez, Sakana LH institutuko Mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza ikasten ari diren ikasleak praktiketan hartzen dituzte. Baita unibertsitatean gizarte langile edo gizarte hezitzaile ikasketak egiten ari diren ikasleak hartzen dituzte praktiketan, urtero bat edo bi. Mankomunitatean praktiketan aritzen diren ordu kopurua ikasketen arabera da, esaterako, gizarte langileen praktikak 300 ordukoak dira. Bai langileek bai ikasleek praktiken balorazio ona egiten dute.

Gazteluko plaza bete goi tentsioko egitasmo

Egitasmoak ikututako udal eta kontzejuek ekitaldia antolatu dute larunbat eguerdirako

SAKANA

Forestaliak bi goi tentsio linea proiektu ditu mahai gainean, eta beste bat Red Electrica Españolak (REE). Bi enpresa horien egitasmoen kontra Izarbe ibarreko, Iruñerriko, Goierriko eta Sakanako 24 udal. Eta haiek deituta, *Ohitura, natura, kultura. Herri biziak goi tentsioko lineen aurrean* leloa duen ekitaldia antolatu dute Iruñeko Gaztelu plazan larunbat eguerdian. Aurre-ratu dutenez, "kultura eta errebindikazio izaerako ekitaldia izanen da". Hiriburura ikututako herrietako hainbat kultur adierazpen eramanen dituzte, "herrien etorkizuna eta orain mehatxupearan dagoen bizitza duina izateko eskubidea aldarrikatzeko". Besteak beste, erraldoiak aizkolariak, dantzariak edo txalapartariak, pertsonaia mitologikoak eta inauterietakoak, bertsolariak, trikitilariak eta beste egonen dira. Bestalde, herrietako alkateek sinatutako manifestu bat aurkeztuko dute.

Forestaliako bi lineek alde zuzeneko administrazio baimena jaso dute eta REE zain dago. Horregatik, plataformak *Alarma gorria* kanpaina gorria abiarazi zuen, "heldu den arriskuaz gaitzateko".



Mobilizaziora deitu duten erakundeetako ordezkarien agerraldia. UTZITAKOIA

Nekazari Borrokaren Egunean mobilizaziora deitu du Belardik

Elikadura subiranotasunaren alde eta nekazaritza eredu industrialaren kontrako manifestazioa egingen da

SAKANA

Nekazari Borrokaren Nazioarteko Egunean, apirilaren 17an, Nafarroako ekoizle txikien hamabi elkartek, Belardi barne, agerraldia egin zuten. Adierazi zuten, sektoreak "muturreko" egoera bizitzen ari dela: "azken 20 urteotan Nafarroan nekazaritza sektorea erdira murriztu da". Azaldu zuten, 14.000 ekoizpen baino gutxiago eta 2.300 nekazari baino gutxiago daude gaur egun. "Desagertze horrek, funtsean, gure ekoizpen ereduari eragin dio, hau da, ekoizpen txikienei, dibertsifikatuagoei

eta lurraldeari lotuagoei. Esate baterako, agerian dago abeltzaintza estentsiboa eta artzaintza desagertzen ari direla eta, bien bitartean, makro ustiatzearen eredu etengabe hazten ari dela, batez ere esnetarako behietan, txerrietan eta hegaztietan, beti ukuluan dauden animaliekin", adierazi zuten. Esan zuten, "ekoizpen eredu horrek ez gaitu elikatzen eta ez gaitu elikatuko etorkizunean". Elikadura subiranotasunaren alde egin eta larunbatean, 17:30ean, Iruñeko Baluarte plazara joateko deia egin zuten.

DUELA 25 URTE...



Hondakindegia mustu zuten

Arbizuko Utzubar dermionan dagoen hondakindegia egiteko Sakanako Mankomunitateak 285 milioi pezetako (1.712.884 euro) inbertsioa egin zuen. Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren %90 ordaindu zuen. Eraikitakoa Puntako hondakindegia zen. Maiatzaz geroztik han isuri ziren Sakanan jasotako hiri hondakinak eta, beraz, Gasteizko Gardelegi hondakindegira eramateari utzi zion Mank-ek.



Gursen izan ziren altsasuarrak mustutako monumentuaren ondoan. UTZITAKOIA

Gurseko errefuxiatu eremukoak gogoan

Nafarroako agintariek, mugaren bi aldeetako senide, elkarte, ikasle eta agintariekin batera, esparrutik igaro ziren 500 nafar ingururen izenak biltzen dituen monumentu bat aurkeztu du. Errefuxiatu eremuan 88 sakandar egon ziren

SAKANA

Gurseko (Akitania) kontzentrazio esparruan 1939 eta 1945 artean barneratutako 500 nafar ingururi omenaldia egiteko ekitaldi instituzionala egin zieten joan den ostiralean. Gobernuak antolatutako ekitaldian, "pertsone horien guztien demokraziarekiko eta faxismoarekiko konpromisoa aldarrikatzeko" helburuarekin, monumentu bat mustu zen. Hartan 500 nafar horien izenak daude idatzita. Ekitaldian, senideek, elkarrekin, Lizarrako BHIko ikasleek eta mugaren bi aldeetako agintari autonomiko eta lokalek ere parte hartu zuten. Han izan zen Sakanako ordezkari ere.

Ana Ollo bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak azaldu zuenez, "haiei egindako omenaldia eta mezua modu sinbolikoan indartzeko" beharra zegoen, "horretarako mustu dugu monumentu txiki hau bere izenen

plakaren ondoan". Han bizi izan zutena gogoan, Ollok adierazi zuen: "ez hemen, ez inon. Sekula gehiago ez inorendako. Izan ere, zoritxarrez, errefuxiatuendako edo presoendako esparruetako irudiak egunerokoak dira. Gerra eta indarkeria ez daude hain urrun. Europak une delikatuak bizi ditu. Baina itxaropenaren sugarra bizirik mantendu behar da" esan zuen.

Kexa

Gursen izan zen Aitziber Etxaiz Soria altsasuarra, kontzentrazio eremuan senidea izan zuena. Kexu bueltatu zen etxera. Gogoratu du gerra galdutako errefuxiatuak hondartzetan prestatutako kontzentrazio eremuetan

"ZERRENDA BAKARRA EGIN ZUTEN ORAIN ZERGATIK EGITEN DITUZTE BI ZERRENDA?" AITZIBER ETXAIZ SORIA

sartu zituela Frantziako Gobernuak. "Hainbat euskal herritar Argelès sur Merko hondartzan sartu zituzten. Euskal herritarrek antolatzen hasi ziren eta eremuko buru izendatu zuten Martin Soler Zangitu altsasuarra". Atzerrian zegoen Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, Euskal Herriatik gertuen zegoen eremura lekualdatzeko ahaleginak egin zituzten, baita lortu ere. "Horretarako euskal herritarren zerrenda bat egin zuten", azaldu du Etxaizek.

Ostiralean Gurstik haserre bueltatu zen Etxaiz: "1939an hegoaldeko lau probintzietako euskal herritarren zerrenda bakarra egin zuten. Orain Nafarroako Gobernu eta Eusko Jaurlaritza bakoitza bere aldetik ari da, bakoitza bere zerrendarekin, Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegokoa. Zerrenda bakarra egin zuten, hari segituz lekualdatu zituzten. Orain zergatik egiten dituzte bi zerrenda? Historia eraldatzen ari dira", kexu da Etxaiz.

25 URTE UHINAK EUSKARAZ ALAITZEN

euskara kirolean

MAHAI-INGURUA



ospatu gurekin BELEIXE EGUNA


HIZLARIAK



Jagoba Anasate Elustondo
Osasunako entrenatzailea



Yolanda Martil Fernandez
Xotako jokalaria eta kapitaina



Maitane Vilariño Mendinueta
Osasunako jokalaria



Igor Martínez Lumbreras
Saskibaloia irakatslea eta 2024ko
Conquistako partaidea



Iñaki Berastegi Goikoetxea
kazetariak gidatuta

GOIZEAN IRRATSAIO BEREZIA



BAZKARIA

IZENA EMATEA: BEHEKO HELBIDEETAN.



ONDOREN JOXEK_FARRA


APIRILAK 30,
ASTEARTEA

🕒 18:00

📍 IORTIA KULTUR GUNEA
ALTSASU

📅 MAIATZAK 4, LARUNBATA

📍 ETXARRI ARANATZ



beleixe 25 URTE



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



107.3 FM
beleixe 25 URTE

Udalak 425.000 euroko kontratu deiak egin ditu

Kaleetan, Dantzalekuko igerilekuan eta Ondarriako industrialdean konponketak egiteko lanek hartzen dute kopururik handiena. Gainera, 2021eko abenduko uholdeek beheko bentan eta Errotatxikin eragindako kalteak konponduko ditu

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Altsasuko Udalak 425.191,12 euroko (BEZik gabe) balioa duten lanak emateko pausoa eman du. Ondarria industrialdeko eta mugikortasun planerako lanak salbu, gainontzeko guztietarako eskaintzak aurkezteko epea maiatzaren 10eko 23:59an despiditzen da.

Igerilekua

Dantzalekuko kirol guneko igerileku handia eta txikia konpondu zituen udalak 2020an eta 2021ean. Aurten ertainaren txanda izanen da. Igerilekuak duen zeramikazko estalduraren gainean PVC armatuzko estaldura berri bat jarriko dute langileek. Horrela, igerilekuak dituen iragazketa arazoak konpondu nahi ditu udalak. Izan ere, ur ihesek beharrezkoa egiten baitute etengabe ura ematea. Era berean, igerileku handiaren eta txikiaren instalazioaren konpentsazio hodiak ere konponduko dituzte. Konpentsazio ontzi horiek hormigoizko armatuz eginak daude eta ura pasatzen uzten dute, barrutik kanpora eta alderantziz. Urak kanpora ihes egitearen ondorioz, igerilekuei ura etengabe eman behar zaie. Konpentsazio ontzietara ura sartzearen ondorioz, berri-



Eraikinaren pareko eustormaren oinarria kaltetu zuen uholdeak. UDALA

Kale konponketak

Bost kaletan eginen diren lanetara udalak 149.696,89 (BEZik gabe) bideratu ditu. Lana egiteko 75 egun daude.

Erkuden

Altzania eta Gipuzkoa kaleen arteko zatian asfalto berrituko du udalak 825 m²-an, trafikoa dabilen zatia, ez aparkalekuan. Halako gainontzeko lanetan bezala, zoru fresatu, oinarria

ongi jarri eta zoru berria zabalduko dute.

Auzobide

14 eta 24 zenbakien artean kaleko zoru berrituko da, bakarrik trafikoa dabilen zatia, ez aparkaleku gisa erabiltzen dena. 1.380 m²-ko azalera asfalto berria zabalduko dute.

Erburua

Klinikako eguneko zentroaren sarreraren parean dagoen

lohiak sartzen dira eta ponpak trabatzen dituzte.

Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, lanak igerileku sasoia despiditu ondoren hasiko dira, irailaren 1etik aurrera. Haiek egiteko ardura hartzen duen enpresak hiru hilabete izanen ditu egiteko. Lanek 43.072,88 euroko (BEZik gabe) aurrekontua dute.

Ondarria

Industrialdeko hobekuntza lanei segida emanen die aurten ere Altsasuko Udalak. Zehazki B kalean zentratuko da, industria gunearen iparraldean dagoena. Kaleko zati txiki batean asfalto berrituko du, baita kalearen iparraldeko espaloia ere. Kalearen aldamenetik ibai pasatzen da eta 2021eko abenduaren 10eko uholdeak eragin zituen ur emariak gerriratu eragin zuen. Lur mugimendua B kaleko espaloitik bi metrora izan zen. Espaloi azpitik pasatzen dira azpiegiturak, tartean, gasarena. "Arriskutsua denez, konponbidea emateko ibaian harri lubeta bat egin nahi dugu", azaldu du Javier Ollo Martinez alkateak. Lan

horiek 133.411,59 euroko aurrekontua dute. Udalaren diruzaintzako gerakinarekin eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin finantzatuko ditu udalak. Azken hori eskatuta du. Azken urtetan Altsasuko Udalak hainbat hobekuntza lan egin ditu Ondarria industrialdean.

Uholdeen kalteak, eta beste

2021eko abenduaren 10eko euriteek uholdeak eta, ondorioz, hainbat kalte sortu zituzten herrian. Horiek konpontzeko udalak 52.559,76 euro (BEZik gabe) bideratu ditu. Obrak joan zen urtean egitekoak ziren, baina Eboko Ur Konfederazioaren baimena abenduan iritsi zen, eta udalak lanak atzeratzea erabaki zuen. Lanak bere gain hartzen dituen enpresak 60 izanen ditu haiek despiditzeko.

Beheko benta auzoan ibaiaren emariak kalearen hormigoizko eustorma baten oinarrian zegoen tufa eramane zuen eta, ondorioz, zati bat erori zen. Horrek arazoak eragin ditzake hormaren osotasunean, eta, beraz, beharrezkoa da horma sendotzeko eta babes-

espaloia oso hondatuta dago. 55 m²-ko azalera udalak baldosa guztiak berrituko ditu.

Zelai

73 eta 79 zenbakien artean dagoen etxarteak etxebizitza batzuen atzeko aldera ematen du. 230 m²-ko azalera du eta lurrezko zoru porlanagatik aldatuko du udalak. Horren aurretik euri urak jasotzeko kanalizazio lanak ere eginen dira.

Zoruko asfalto berrituko da aterpetxearen aparkalekutik Lanbide Heziketako institutuko ateraino, beti ere, aipatu eraikinen ondoko errailan. Guztira 575 m² berrituko dira.

Gurutze Saindua

Kaleko 1, 11 eta 13 zenbakien artean dagoen etxartearen euri urak jasotzeko kanalizazioa egin eta porlanezko zoru eginen du. Lanek 200 m²-ko azalera hartuko dute.

Aita Barandiaranek jantokia eta garbiketa kudeatuko ditu

Asteazkenetik aurrera izanen da eta zerbitzu horietako sei langileak patronatukoak izatera pasako dira

ALTSASU

Maiatzaren lehenetik aurrera Aita Barandiaran adinduen egoitzak elikadura eta garbiketa zerbitzua zuzenean kudeatuko du. Hala erabaki du Altsasuko Udalak zerbitzu horiek kon-

tratatzeko deialdia hirutan hutsik gelditu ondoren. Erabaki hori aurrera eramateko udalak hiru aurrekontu aldaketak onartu ditu. Aurrena, 23.224,66 eurokoa, garbiketako eta sukaldede langileen urte akaberara

arteko gizarte segurantzaren ordaintzeko. Bigarrena, 75.696,18 eurokoa, aipatu langileen soldatak ordaintzeko. Eta, atzenera, 70.039,03 eurokoa, elikagaiak eta garbiketa produktuak erosteko.

Udalak egoitzako plantilla organikoa ere aldatu behar izan du. Horrela bi zerbitzuetan lan egiten duten sei langileak patronatuan sartu ditu. Haietako lau langile sukaldede aritzen dira eta beste biak garbiketaren lanetan. Sukaldeko langileen



Aita Barandiaran adinduen egoitza.

artean sukaldari batek lanaldi osoa du, beste sukaldari batek %42,11ko lanaldia partziala du eta beste bi laguntzailek %63,20ko lanaldi partzialarekin ari dira lanean. Garbitzaile laguntzaileen kasuan, berriz, %56,40ko eta %55,26ko lanaldiak dituzte. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, "sei lanpostu horiek gehieneko hiru urteko epean oposizio lehiaketan bitartez behin betiko bete behar dira".

Asteartean 33 urte beteko dira Aita Barandiaran egoitza mus-

teko esku hartzea. Horretarako, lehenik eta behin hormaren oinarrian dagoen landaredia kendu eta dagoen eustorma kontzertuko hormigoiz beteko dira dauden zuloak. Langileek enkofratze lan horiek egin ahal izateko ibaiaren ibilgua aldatu beharko da. Errota txikin, berriz, uholdeak Ibarria poligonoko saneamendua berritzeko jarduketaren barruan egindako gainezkabide bati eragin zion, dagoen ibai ertza kaltetu baitzen. Zehazki, gainezkabidearen azken zatia lekuz aldatu zen eta, ondorioz, funtzionatzeari utzi zion. Atzera ere, hustubidea egin beharko da.

Autoa Udaltzaingorendako SUV motako autoa erosi nahi du udalak. Horretarako, 28.950 euro (BEZik gabe) bideratu ditu. Kontratua eskuratzen duenak 90 egun izanen ditu ibilgailua udalari emateko. Erosketarako udalak dirulaguntza eskatuko du. Alkateak jakinarazi duenez, egun udaltzainek erabiltzen duten ibilgailua obren lantaldearena izatera pasako da. Horretarako, aurretik ibilgailuan dauden poliziaren hainbat elementu kenduko dituzte. Autoa 2006koa da.

Bestetik, udalak mugikortasunari buruzko azterketa egiteko 14.000 euro bideratu ditu. Alkateak azaldu duenez, "aurrekontuen tramitazioan EH Bilduk emendakina aurkeztu zuen azken mugikortasun azterketaren berrikuspenean egin eta bizikletaz mugitzeko ikerketa berezi bat egiteko eskatuz. Emendakina ez zen onartu, baina Ogasun eta Aurrekontu Batzordean konpromisoa hartu zen aurrekontu aldaketa egiteko". Horrela finantzatu du udalak ikerketa lan hori.

tu zutela. Hasieratik izan ditu azpikontratututa garbiketara eta sukalde zerbitzuak. Udala berritzeko berritzeko lizitazioak egin izan ditu, baina duela urte bete ez zuela berrituko jakinarazi zuen; prezioen igoera argudiatu zuen. Eta Kontratu Publikoaren Foru Legearen arabera zerbitzu kontratuen prezioak ezin dira berrikusi kontratua indarrean dagoen bitartean. Zerbitzuak emateko hiru deialdi egin zituen eta inork ez zuen eskaintzarik aurkeztu.

Teileriko zabala sasiz garbitu du udalak

Berez heldu diren bertako haritz landareak babesteko eremuak markatu ditu udalak, beste batzuek egurren laguntzaz gidatu ditu. Basoa zeharkatzen duen argindar linea konponduko dute udaberrian. Bargako gaztainondoak berreskuratzeko lanak hasi ditu

Alfredo Alvaro Igoa URDIAN

Urdiaingo baserrien ondoan, Teileria zabalen, dagoen basoa sasiz bete da denbora gutxian. Horren jakitun, Urdiaingo Udala hura garbitzea erabaki du, "handik jende asko paseatzen delako, eta azienda dutenek ere bazkatokia behar dutelako", azaldu du David Oroz Alonso alkateak. Herriko abeltzainekin hitz egin dute dagoeneko sasi garbiketaz eta ondorengo kudeaketaz. Garbiketa lan horiek zortzi hektareako eremuan egin dira eta 7.040 euroko aurrekontua du.

Aldi berean, basozainekin elkarlanean ari da Urdiaingo Udala. "Proba moduan duela bi urte eskuarea pasa zen, han zeuden ezkurak zabaltzeko eta ematen ari da, berez datoz haritzak". Horieta batzuk babesteko, basozainek Teileria zabalgo eremu batzuk zintaz markatu zituzten. "Horietan ez da sasirik garbitu,



Garbiketa egin ondoren haritzak babesteko eremuak utzi dituzte.

berez heldu diren haritzak babesteko. Gainera, handixea goak diren haritz berrien ondoan makilak jarri dizkiegu, zuzen haz daitezzen, eta garbiketa egiterakoan haiek ere ez mozteko", azaldu du Orozek.

Bestetik, bargan dauden gaztainondoei ere erreparatu die udalak, eta "haiek laguntzeko lanean ari gara. Pagoak janda daudenez, etxerako egur loteak inguru hartan ematen ari gara, pago bakanketa egin eta gaztai-

nondok aurrera errazago egiteko", azaldu du alkateak. Auzolanean eta profesionalen laguntzaz ari dira gaztainondoan lanketa hori egiten. Dauden zuhaitz zaharrek batera, berriak ere etortzea nahi dutela azaldu du Orozek.

Linea eta teilatua

Urdiaingo basoa zeharkatzen duen argindar linea bat dago, elektrizitatez hornitzen dituen Sarabeko baserria eta igerilekuak. Eguraldiagatik eta denboraren joanagatik argindar linea horretako hainbat zutoin eroriak edo erdi eroriak daude eta, ondorioz, elektrizitatea daraman kablea zenbait tokitan askatu eta lurretik gertu dago. Linea pribatua da eta haren jabeekin hitz egin ondoren, alkateak jakinarazi du udaberrian txukunduko dutela.

Udalak Nafarroako Gobernua- ren aurrekontutik 90.000 euro jasoko ditu. EH Bilduren aurrekontu emendakian horren bidez Elizazpi frontoiko teilatutik amiantodun uralita kendu eta metalezko teilatu bategatik aldatuko du udalak. "Dagoeneko dokumentazioa aurkeztu diogu Nafarroako Gobernuari". Prezioen inflazioak ere eragin dio obra horri, 120.000 euroko aurrekontua zuenak 182.000 du orain, "baina ez gaude laguntza ukatzeko". Behin teilatua berri- tu ondoren udalaren asmoa da han argindarra sortzeko eguzki plakak jartzea.

Ikasleendako ikasgela zabaldu dute kultur etxean

Etxean eta liburutegian ikasi ezin zutenen eskariaren ondoren prestatu dute ikasteko gela

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Liburutegian haurren eta helduen gelak ez daude isolatuta. Gainera, ipuin kontaketa eta tailerrak ere antolatzen dira. Beraz, Isabel Muñoz Mouriño liburuzainak esan duenez, "behin baino gehiagotan ikusi dut zarategatik ikasle bat etxera joaten. Ikasteko beste alternatiba batzuk bilatzen dituztela esan didate".

Horren jakitun udal liburute- giak eta Kultura Zerbitzuak Zero Zarata espazioa sortu dute. Espazio hori ikasteko beharra dutenei zuzenduta dago, ez bes-

te inorendako. Liburutegian horretarako leku aproposik ez dagoenez, kultur etxean bertan, lehen solairuan, sortu dute ikasgela kolektiboa. Hilaren 17an abiarazi zuten ikasketa gela, liburutegiaren ordutegi berean egonen da zabalik urte gutzian. Zero Zarata espazioa erabili nahi duenak aurrena liburuzainari egin behar dio eskaera, eta hark bideratuko du gelara. Hartan hamalau urtetik gorako ikasleak sar daitezke bakarrik.

Dagoeneko gazte batzuk Zero Zarata espazioa erabiltzen hasi



Bi neska Zero Zarata gelan ikasten.

dira. "Nabari da azken azterketak hurbil daudela eta gazte gehiago etortzen direla ikastera. Espero dut, denborarekin, gero eta jende gehiagok erabiltzea", esan du liburuzainak. Muñozek zehaztu duenez, "momentuz, institutuan

daudenak joaten dira ikastera". Erabiltzaileak "pozik" daudela esan diote liburuzainari, "ikasgela horretan isiltasuna bermatuta dute eta, hobe kontzentratzeko, ez dute distrakzioirik".

TX
TXARTEL

ZURE BIDALKETAK
ESTILOAREKIN PERTSONALIZATU!

Orain gutunazaletan zure marka gehitu dezakezu

www.txartel.net

FESTAK

BAKAIKU

UDABERRIKO FESTAK

APIRILAK 26 Ostirala

18:00 Frontenis txapelketaren finala.
19:00 Festen hasierako etxajua.
20:00 Patata tortilla txapelketa.
23:00 Kontzertuak: Beietz! eta Bihurri erromeria.

APIRILAK 27 Larunbata

12:30 Herri apustua.
13:30 Trikitilariak girotutako poteoa.
14:30 Herri bazkaria.
16:30 Gynkana.
17:15 Pancho Valbuena mariatxia.
18:45 DJ Track-a-rekin herritik.
Gazte asanbladak antolatuta.
22:00 Luzianorekin dantzaldia.
00:30 DJ Gozaderak.

APIRILAK 28 Igandea

16:00 Desmuntatzea.

ETXARRI ARANATZ

APIRILAK 28 Igandea

AMALURRA AZOKA

10:00-14:00 Azoka gardena: Sakanako eta Nafarroako Ekoizle eta Artisauen postuak.
Haurrendako landaketa tailerra.
Etxarriko Gaiteroen musika.
12:30 Bertako arkume errearen dastaketa.
13:00 Herri kirolak: Josetxo Urrutia harrijasotzailea eta aizkora desafioa.

MAIATZAK 1 Asteazkena

MAIATZAK GORA

12:30 Bizako gainaren bestaldean momentuan aukeratutako pagoa moztuko dute eta Hartzabalera bizkar gainean eramanen dute, bertan zutitzeko.

BAKAIKU

MAIATZAK 1 Asteazkena

MAIATZAK GORA

09:00 Gosariaren ondoren Iditxarrera Zuhaitzaren bila joan, moztu eta Hartzabalera eramanen dute. Eguerdi aldera maiatza jasotzen hasiko dira.

ITURMENDI

MAIATZAK 1 Asteazkena

MAIATZAK GORA

Goizean, Mikologia erakusketa, auzogelan.
Eguerdian, elkartasun bazkaria.
18:00 Maiatza altxatzea, herriko plazan.
Ondoren, herriko dantzariak eta auzatea.

ZIORDIA

MAIATZAK 1 Asteazkena

MAIATZAK GORA

11:30 Maiatza Bargan zutituko dute.
15:00 Bazkaria, elkartean.
Izena eman: Urbasa tabernan edo Anixeta tabernan apirilaren 28 baino lehen.
18:30 Maiatza txikia, Txoperan.

ALTSASU

ALDE ZAHARREKO FESTAK

MAIATZAK 3 Ostirala

20:00 Pintxopotea, gaztetxean.
AGAk antolatuta.
20:30 Aurkezpen sorpresa, gaztetxean.
AGAk antolatuta.
22:30 Kontzertuak: Deserrite eta Kontralde, gaztetxean.
AGAk antolatuta.



ARTXIBOA

ETXARRI ARANATZ Amalurra Azoka izanen da apirilaren 28an, igandea, Etxarri Aranazko plazan Belardik, Bizilurrek, Etxarri Aranazko Udalak eta Sakanak antolatuta.



ARTXIBOA

ETXARRI ARANATZ, BAKAIKU, ITURMENDI ETA ZIORDIA Maiatzak altxatuko dituzte maiatzaren lehenean, asteazkena.

ZURE PUBLIZITATEA

HEMEN



guaixe
fundazioa



Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245
publi@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/



FUTBOLA

EMAKUME PREFERENTEA

6. JARDUNALDIKO EMAITZA
Berriozar - Altsasu **2-1**

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA. 2. FASEA

1 Gares **13**
3 Altsasu **8**

HURRENGOA, KOPA

MAIATZAK 18-19 ASTEBURUA

Zehaztu gabe

Altsasu, Koparen zain

Preferenteko bigarren fasean hirugarren izan da Altsasu. Hurrena, Kopa.

GIZON PREFERENTEA

28. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Altsasu - Burlades B **0-1**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades B **57**
13 Altsasu **35**

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 27, LARUNBATA

16:30 Beti Casedano - Altsasu (*La Laca*)

Altsasuk Casedan jokatu du

Altsasuk liderrari ongi egin zion aurre, baina Burlades aurreratu, eta gorritxoek ezin izan zioten buelta eman. Bihar sailkapenean hirugarren eta jokoan asko duen Beti Casedanoren kontra ariko dira.

Zaldua, gelditu gabe

Elomendiko Txapelketan, Zaldua Talleres Goñik 4-0 hartu zuen mendean Izalsa. Arakildarrak laugarren postura igo dira, eta Modernillo dute aurkari.

GIZON ERREGIONALA

26. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Arga Ibaia **3-0**
San Jorge - Lagun Artea **3-1**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Etxarri Aranatz **54**
2 San Jorge **53**
8 Lagun Artea **39**

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRILAK 27, LARUNBATA

19:00 Robxapea B - Etxarri A. (*El Irati*)

APIRILAK 28, IGANDEA

11:00 Lagun A. - Mutilvera C (*Zelai Berri*)

Etxarri Aranatz, lider

Etxarri da erregional mailako lider berria. Sailkapena oso estu dagoenez, postuari eusteko Robxapea irabazi beharrean dago.

Lagun Artea, hirugarrenaren kontra

Lidergoa lortzeko borrokan dagoen Mutilvera C taldea hartuko du Lagun Arteak.

"Hasi aurretik hirugarren postu hori sinatuko nuke"

ARKAITZ JAUREGI GORROTXATEGI AIZKOLARIA

AIZKORA III. Euskal Duatloian hirugarren sailkatu zen Arkaitz Jauregi. Entrenatzeko behar bezalako astirik izan ez duela kontuan hartuta, egindakoarekin "gustura" dago

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Igandean III. Euskal Duatloiko finala jokatu zen Azpeitiako zeren plazan. Martxoaren 23an Tolosan jokaturako kanporaketan sailkatutako sei aizkolarik jokatu zuten finala: Ugaitz Mugerzak, Ibai Soroak, Oier Kañamaresek, Arkaitz Jauregik, Suharri Rodriguezek, eta Xabier Zalduaren orde aritu zen Julen Kañamaresek. Egin beharreko lana ez zen edonolakoa: 45 ontzako lau enbor etzan erdibitu; segidan 4 km-ko korrikaldia egin; eta, azkenean, zutik kokatutako 45 ontzako lau enbor erdibitu. Azkarena Ugaitz Mugerza izan zen (31:56), Oier Kañamarezen (33:48) eta Arkaitz Jauregiren (33:54) aurretik. Atzetik Ibai Soroa (34:51), Suharri Rodriguez (35:17) eta Julen Kañamare (40:24) sailkatu ziren. Mugerza nagusitasunez gailendu zen, baina aitortu zuenez, "nahiko" sufritu zuen. 2022an lortutako txapela aurten berri izan zuen.

Iaz laugarren sailkatu zinen Euskal Duatloian, eta aurten hirugarren, Oier Kañamare bigarrenetik 6 segundo eskasera. Gora egin duzula pentsa daiteke.

Finala hasi aurretik hirugarren postu hori lortzea sinatuko nuke. Azken urte honetan egur gutxi moztu dut, aizkora ia utzita dut eta korrika ere gutxi ibili naiz. Gainera, pisu pixka bat hartu dut, eta aurreko erritmo eta denboretara ailegatzea gehiago kostatzen zait. Beraz, alde horretatik diot hasi aurretik hirugarren postua sinatuko nukeela. Bestalde, orain dela bi urte bigarren sailkatu nintzen, eta beti pentsatu izan dut proba hau, Euskal Duatloia, ni bezalako aizkolarik batendako eginiko proba bat dela, hau da, ez garelako gorputz handiko aizkolarik horietakoak, eta korrikan pixka bat ibilita ongi moldatzen garelako. Eta alde horretatik, hobeki prestatu ezin izanagatik pena dut.



Arkaitz Jauregi Gorrotxategi, korrikako sektorean. IBON ERRAZU

"GEROZ ETA DENBORA GUTXIAGO DUT ENTRENATZEKO, ETA URTEETAN ERE AURRERA NOA"

Beraz, proba ezin izan duzu behar bezala prestatu, eta hirugarren postu horrek ez zaituela guztiz ase ondoriozta daiteke, edo prestatu duzunerako bikain atera zaizula. Zein da duzun sentipena?

Bi gauzak. Beti gelditzen zaizu txirrinta hori. Euskal Duatloia irabazteko gogo hori banuen, baina ezin izan dut asko prestatu. Lan handiak dira, ongi prestatu beharrekoak. Lan kontuentatik eta beste ezin izan dut behar bezala entrenatu, eta alde horretatik pena pixka bat dut. Baina aurten ibili naizena kontuan hartuta, azkenean gustura nago egindako lanarekin.

Ugaitz Mugerzak irabazi zuen txapela duela bi urte, eta faborito nagusia zen, baina horrenbesteko alde aterako zuela espero zenuen? Nik banekien berak txapelketa oso ongi prestatuta zuela. Tolosako kanporaketan ere berak

denborarik hoberena egin zuen, eta banekien berari txapela kentzea oso zaila izango zela; beraren hutsen bat beharko zela berak txapela ez janzteko. Ibai Soroa ere antzeko zebilen, Oier Kañamare baita ere... asko prestatu zuten finala. Bestalde, egur kontuak ere hor izaten dira; askotan egur xamurra jartzen denean horren aizkolarik ez direneke ere egurra pasatzen dute. Baina aurrekoan ez zen horrela izan; egur batzuk nahiko eutsiak izan ziren, eta horrek niri ere lagundu zidan. **Zutik jarritako enborretan nabaritu omen zen gehien. Enbor batzuk oso gogorak zirela diote.** Zutikako egurren bat bai izan zela bereziki eman beharrekoa, baina beste hirurak nik uste nintzen zait behintzat. Lehendabiziko egurra beste biek paretsu bota nuen, eta azkenean ia minutu eta erdiko galera izan nuen lau egurretan. **Aizkora nahiko utzia duzula esan duzu. Aurten txapelketaren batean aurkezteko asmoz zaude?** Ez dakit ere zer esan. Hau azkeneko txapelketa izango zela esa-

ten nuen. Motibazio falta handiarekin nabil, eta aizkorak lan asko du atzetik: egurrak prestatu behar dira, entrenatu, egurrak bildu, eta alde fisikoa landu, aizkora lehiatzeko ez baita nahikoa soilik aizkora entrenatzea. Geroz eta denbora gutxiago dut, urtetan aurrera noa eta ez dakit. Duatloian lortutako emaitza eta hurbileko jendearen animoak ikusita, aurten behintzat ez uzteko esaten didate. Baina beraiek ni laguntzeko konpromisoa hartzen ez badute, argi dut utzi beharko dudala.

Aizkolarik batek prestatutza fisikoa behar duela aipatu duzu. Aizkorri Kirol Zentroan aritu izan zara, eta hortik sortu zen crossfita eta aizkora batu zituen Altsasuko kirol apustu hura. Bide horretatik jarraituko duzu?

Aizkorri hasi nintzen entrenatzen, eta ongi mantentzeko laguntzen didala jabetu nintzen; han dagoen giroa gustuko dut, eta zaletasunez egiten dut. Egin genuen apustu hartatik Euskal Duatloiko Txapelketa hasi baino hogeita egun lehenera arte aizkora alde batera utzi nuen. Proba prestatzeko aizkora hasi nintzenean Aizkorri segitzen nuen, baina ikusi nuen funditzen hasi nintzela, eta tarte horretan Aizkorriko prestatuta utzi nuen. Orain, ziurrenik berriro bueltatuko naizela. Esan bezala, gertukoek ni laguntzeko konpromisoa hartzen ez badute, aurten aizkora txapelketak utziko ditut, ziurrenik, baina aizkora jarraituko dut beste modu batean, aizkora gustuko dudana kirola delako eta ongi mantentzen laguntzen didalako.

Bestelako erakustaldietan parte hartuz, ezta? Plazetako erakustaldiak, festetakoak, apustuak...

Erakustaldietan bat ateratzen bada, eta gure arteko apusturen bat, ziur oraindik bateonbat aterako dela, halakoetan bai, parte hartuko dut.

Nola ikusten duzu Sakanako aizkolarien uzta berria? Pixkanaka hasi dira loratzen eta gazteen mailako txapelketetan parte hartzen.

Aizkora mundu honetan gazte dezente murgiltzen ari direla ikusten da, eta maila polita ematen ari dira. Sakanako Aizkora Eskolak horretarako aukera handia ematen du. Jakina da kaleko edozeinek ezin duela aizkora aritu, aizkorak baldintza batzuk behar dituelako, eta eskolak asko laguntzen du.

Zabaletaren erronka, Altuna minduaren kontra

PILOTA Buruz Buruko Txapelketako B multzoko galtzaileek, Zabaletak eta Altunak, hil ala biziko partida jokatu dute igandean Eibarko Astelenan. A multzoan, Joseba Ezkurdiak ia ezinezkoa du txapelketan aurrera egitea

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Buruz Buruko Txapelketak sorpresa handiak ekarri ditu. B multzoan Unai Lasok 7 tantotan utzi zuen Jokin Altuna. Bizkarretako aurrelaria bueltan da, eta txapela janzteko faboritoen artean dagoela aldarrikatu zuen.

B multzoko lehen jardunaldi-galtzaileek, Jose Javier Zabaletak eta Jokin Altunak, elkarren kontra jokatu dute igandean Eibarko Astelenan. Hil ala biziko partida da biondako, eta Altuna minduak ez dizkio gauzak batere erraz jarriko Zabaletari. "Niretako Altuna buruz burukoan izan dudana areririk txarrena izan da. Jokatu izan dugunean, beti irabazi izan dit. Aurreko partidetan baino tanto gehiago egitea da lortu nahi dudana, gutxienez, gauzak zail jartzea. Hasieratik oso kontzentratuta ater beharko dut, Darioren kontrako partidaren gertatutakoa ez errepikatzeke eta partida ez galtzeko.



Zabaleta eta Altuna, material aukeraketan. ASPEPELOTA.EUS

Sake-errestoan hobetu beharko dut, gero botera jokatu ahal izateko" azaldu zuen etxarrendarrak material aukeraketan.

Altunak aitortu zuen Lasoren kontra "kolpe ederra" jaso zuela. "Merezimendu osoz irabazi

zidan. Tarteka, halakoak ondo etortzen dira, lorik ez hartzeko. Halako partida baten ondoren, entrenamenduetako errutinaren zentratzea izaten da onena. Eta horretan nago, igandean topera ateratzeko".

Ezkurdiak ia ezinezkoa du aurrera egitea

Buruz Buruko Txapelketako A multzoan, Joseba Ezkurdiak 22-11 galdu zuen Javi Zabalaren kontra Labriten. Zabala nagusi izan zen, eta Ezkurdi ezin gozatuz aritu zen, sufrizten. "Sentsazio txarrekin eta haserre noa etxera. Ez naiz partidaren sartu ere egin. Aurkariei aukera asko ematen dizkiet, eta horrela ezinezkoa da" azaldu zuen.

Final laurdenetako ligaxkako lehen bi jardunaldiak galduta, txapelketan aurrera egitea ia ezinezkoa du Ezkurdiak. Aurrera egiteko, maiatzaren 5ean Elordiren kontra Bilbon jokatu duen partidaren arbitzuarrik bizkaitarra 2 tantotan edo gutxiagoan utzi beharko luke, eta Zabalak Artolaren kontra maiatzaren 4an jokatu duten partidaren errotxarrak galdu beharko luke. Beraz, bide oso zaila du aurretik. A multzoan Artolak bi garaipen ditu, Elordik eta Zabalak bana, eta Ezkurdiak ez du punturik.

LABURREAN

Mikel Uncilla, lortutakoarekin pozik



Larunbatean Euskaldun Txapelketarako Natxituako lasterketan bigarren izan zen Mikel Uncilla etxarriarra (Rural Kutxa-Alea) bere taldekide Pablo Lospitaoren atzetik. "Oso azkar hasi gara, eta lasterketa gogorra izan da. Azken aurreko portuan Pablok erasoia jo zuen, eta atzeko esprintean bigarren sailkatzea lortu dut. Pozik nago". Rural Kutxa talde onena izan zen.

Luca Martinezen eta Aralarren podiuma



Lizarrako kadeteen VI. Si Hablaran Trofeoeko helmugara (55 km) hemeretzi txirrindulari iritsi ziren batera, eta esprintean Luca Martinez lakuntzarra (Sakana Group-Alea) bigarren izan zen, eta bere taldekide Erik Laiglesia zazpigarren. Sakana Group-Aralar taldea izan zen talderik onena. Aipatzekoa da Aralar eta Burundako txirrindulari sakandarrak txukun ibili zirela.

Iker Gomez, L'Eroicako sterratoan ikusgarri

Iker Gomezek (Quesos Albeniz) Espainiako selekzioarekin Italiako L'Eroica juniorrean egindako lana aipatzekoa da. Selektzioa sterratoan probako talderik onena izan zen, eta Hector Alvarez liderrak irabazi zuen proba, Gomezen laguntzarekin. Bestalde, maiatzaren 1ean, asteazkena, juniorren Lacturale Trofeoa jokatu da (89,10 km), 10:30ean Etxeberriko granjatik abiatu eta Goldaritzen bukatu dena.



KOSNER SALTOKI HOME

Borrega eta Ariztegui, Titanera

TXIRRINDULARITZA Apirilaren 28tik maiatzaren 3ra jokatu da 17. Skoda Titan Desert Morocco basamortuko txirrindularitza lasterketa gogorra, 600 km eta 7.000 m desnibel baino gehiago duena. Javier Borrega eta Miguel Angel Ariztegui bigarren lehiatuko dira, Kosner Saltoki Home taldearekin. Iaz proba despeditzea lortu zuten, eta asmoa bera da.



UTZITAKOA

Iñaki Mujika, Kopan gustura

TXIRRINDULARITZA Asteburuan Espainiako Txirrindularitza Kopa Paralinpikoko probak jokatu ziren Murtziako Ceuti herrian. Bertan parte hartu zuen Iñaki Mujika izagirre altsasuarrak, handbikeko MH3 mailan. Larunbateko 17 km-ko erlojupekoan hamabigarren izan zen, eta igandeko lasterketan hamaikagarren. Esperientzia bikaina izan zela aitortu du.

Banakakoari agur ezin hobea

GIMNASIA ERRITMIKOA Altsasuk Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Txapelketako bigarren fasea hartu zuen. Iskizako Ane Iturrioz eta Enara Perez txapeldunak izan ziren, eta Nagore Erdozia eta Ainhoa Marijuan podiumera igo ziren

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko Zelandi kiroldegiak Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko NKJ-etako bigarren fasea hartu zuen larunbatean. Nafarroako 21 klubetik gerturaturatutako 136 gimnastak hartu zuten parte, eta guztiek primerako ikuskizuna eskaini zuten. Lehen fasea, aurrekoa, martxoaren 23an jokatu zen Barañainen, eta Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko behin betiko sailkapena egiteko bi jardunaldietan lortutako puntuazioa batu du Nafarroako Gimnasia Erritmikoko Federazioak.

Altsasuko bigarren fasean Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko zortzi gimnastak parte hartu zuten. Laugarren mailan Enara Perez, Haizea Perez, Ainhoa Marijuan, Uxue Zubelzu eta Nerea Palomino lehiatu ziren, eta bigarren mailan Ane Iturrioz, Naroa Diaz eta Nagore Erdozia. Nerea Palomino eta Uxue Zubelzu pilotarekin aritu ziren, eta gainontzekoak mazoekin.

"Oso pozik gaude guztiek egin zuten lanarekin. Denek oso ondo defendatu zuten euren ariketa, eta banakako denboraldiari amaiera ezin hobea eman genion. Oso egun polita izan zen larunbatekoa" nabarmendu du Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko klubeko Olaia Agirre koordinatzaileak. Altsasuk 2019an hartu zuen azken aldiz Nafarroako Txapelketa, eta Iskizakoek gogotsu eta ilusioz hartu zuten aurtengoa antolatzeke erronka.

Altsasun jokaturako bigarren faseko podiumei begira, Ainhoa Marijuan bigarren sailkatu zen kadeteen 2009 kategorian, laugarren mailan; eta Ane Iturrioz bigarren sailkatu zen jubenilen 2007-2008 kategorian, bigarren mailan.



Banakako Nafarroako Txapelketan lehiatu zen Iskizako taldea. UTZITAKOIA

Nafarroako bi txapeldun

Bi faseetako puntuazioa batuz, Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko NKJ-etan bi txapeldun ditu Iskizak: Ane Iturrioz lehengo postuan sailkatu zen bigarren mailako jubenilen 2007-2008 kategorian, eta Enara Perez laugarren mailako kadeteen 2010 kategorian irabazlea izan zen. Horretaz gain, laugarren mailatik hirugarren mailara igotzea lortu zuen Enarak. Bestalde, bigarren mailako jubenilen 2005-2006 kategorian Nagore Erdozia hirugarren sailkatu zen, brontzea, eta Ainhoa Marijuan laugarren mailako kadeteen 2009 kategorian hirugarren sailkatu zen. Ainhoa ere mailaz igotzea lortu zuen, eta Enararekin batera, datorren denboraldian hirugarren mailan lehiatuko da.

Aurki, taldekakoa

Banakako Txapelketa bukatu eta berehala Taldekako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko NKJ-en Txapelketa hasiko da. "Larunbatean, apirilak 27, Taldekako txapelketak hasiko ditugu: kimuen, haurren eta jubenilen taldeekin Tafalla klubak antolatutako torneoan egongo gara. Nafarroako Kirol Jokoak prestatzeko aukera ezin hobea da" aipatu du Agirrek.

Iskiza Liga, igandean Altsasun

Igandean, apirilak 28, beste hitzordu bat dute gimnastek. Iskiza Sakanak Kluben Arteko Iskiza Ligaren Bigarren Fasea antolatu du, 11:00etan, Zelandin. "Iskizako gimnasta guztiek parte hartuko dute, bai eskolakoek eta baita txapelketa taldeetakoek ere. Gimnasta guztien bilakaera ikusteko aukera oso polita izango da Altsasukoa" dio koordinatzaileak. Nafarroako Taldekako Txapelketarako landu dutena erakusteko aukera izango dute gimnastek. "Erakustaldi txikia da, eta beste klub batzuetako gimnastak gonbidatzen ditugu. Datorrenari heltzeko nolabaiteko irteteko pistola-tiroa da". Izan ere, ekainera bitartean ia ez dira geldituko.

"IGANDEAN ISKIZA LIGAREN BIGARREN FASEA IZANGO DA ZELANDIN, 11:00ETAN" OLAIA AGIRRE



Iskizakoak, Castellonen. ISKIZA

Espainiako Txapelketatik, oso pozik

Apirilaren 11tik 14ra Banakako Oinarrizko Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu zen Castellonen. Nafarroako Banakako Txapelketako lehen fasean egindako lan bikainari esker bertan lehiatzeko txartela lortu zuten Iskizako Ane Iturriozek, Naroa Diazek eta Nagore Erdoziak. Orain arte taldeka aritzen ziren lehiatzaileak, baina iaz bi taldekide taldea utzi zuten, aurtengo banaka lehiatzera animatu dira. Ez da aldaketa erraza, baina primeran egokitu dira.

Ane Iturrioz 164 gimnasten artean 126. sailkatu zen, bigarren nafarra, jubenilen 2007-2008 mailan. Nagore Erdozia jubenil mailako 2005-2006 kategorian 137 gimnasten artean 45. izan zen, lehen nafarra, eta Naroa Diaz, kategorija berean 82. sailkatu zen, bigarren nafarra.

"Hirurek akatsik gabeko ariketa egitea lortu zuten, beraz, helburua alde handiz gainditu zuten, eta tapiz gainean ongi pasa zuten. Oso pozik bueltatu ziren, lanean jarraitzeko gogoz" azaldu du Olaia Agirrek. Iskizako koordinatzailea ez dago jasotako puntuazioarekin guztiz ados. "Notek ez zuten tapizeko lana islatu; nahiko baxuak iruditu zitzaizkigun".



Sakanako Herri Kirol Eguneko partaide guztiak, erakustaldia hasi baino lehen.

Harrobiaren indar erakustaldia

HERRI KIROLAK Parte hartze handia izan zuen Sakanako Mankomunitateak aurten Ihabarren antolatutako Sakanako Herri Kirol Egunak. Sakanako Harri Jasotze eta Aizkora Eskoletatik aizkolari eta harri jasotzaile asko ateratzen ari dira

Maidar Betelu Ganboa IHABAR Herri kirolak sustatzeko Sakanan egiten den lanak fruituak ematen jarraitzen du, eta igandean agerian geratu zen Sakanako Mankomunitateak Ihabarren antolatutako Sakanako Herri Kirol Egunean.

Isabel Vivesendako txaloak Sorpresa nagusia Sakanako Harri Jasotze eskolatik etorri zen, eskolan trebatzen den Isabel Vivesek harri jasotze erakustaldian parte hartu zuelako, Iker Goldarazena eta Iñigo Gonzalez kideekin. Lehenengo aldia da Sakanako eskolan trebatzen den emakume batek harri jasotze erakustaldia egiten duela, eta txalo zaparrada ederra jaso zuen pisu eta harri ezberdinekin aritu zen uneoro. Mikel Lasarte harri jasotze eskolako irakasleak ezin izan zuen Ihabarren egon,

baina ongi hezi ditu pupiloak, ikusgarri aritu baitziren. Tamalez, Aitor Oiarbide etxarriarrak ezin izan zuen parte hartu, lesionatuta dagoelako.

Andra Mari eta Iñigo Aritz ikastoletako herri kirol taldeek proba konbinatuetan parte hartu zuten, Ihabarko gaztetxoekin batera. Gustura ibili ziren koxkoletan, txingetan, zaku lasterketan eta korrika. Sokatirako txandan, Sakana Sokatira Taldeak eta Andra Mari eta Iñigo Aritzako taldeek parte hartu zuten, Nerea eta Belen Lizarraga ahizpen aginduetara.

SAKANAKO HERRI KIROL EGUNA ERAKUSLEIHO BIKAINA DA ESKOLAKO GAZTEENDAKO

Aizkolarien erakustaldia Sakanako Aizkora Eskolako arduradun Juanito eta Juanjo Erdozia handik hara zebiltzan. "Oraindik ere gustura jarraitzen dugu eskolan, haur hauek aurrera egiten dutela ikustea poz handia da niretako" zioen Juanitok, Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide ilobak gertu zituela. Erakustaldian eskolan trebatzen ari diren Eneas Aristizabalek, Enaitz Uriak, Hodei Silvak, Xuban Rochak, Hodei Lizarragak eta Aratz Beltzak hartu zuten parte, beteranoen laguntza zutelak. "Eskolako beste hiru ikasle txirindularitza proba izan dute eta ezin izan dute aritu" aipatu zuen Juanito Erdoziak. Azken erakustaldian, Juanjo eta Jon Erdozia aita-emeak gailendu ziren Gozeder Beltza-Aritz Oiarbide eta Ivan Resano-Ioan Goikoetxea bikoteen aurretik.



Sakanako Harri Jasotze Eskolako Isabel Vivesen altxaldia.



Sakana Sokatira taldeak erakustaldi ederra egin zuen.



Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide, zutikako enborrean lanean.

Amalur desafiorako prest

Azaroaren 18an aizkora desafioa jokatu zen Angelun, eta Aritz Oiarbide eta Jon Erdozia lehengusu etxarriarrak gailendu ziren. Igandean, desafioaren errebantxa hartuko du Etxarrik, 13:00etan. Lehengusuek Lapurdiko Patxi Igoa eta Ibai Telletxea dituzte arerio.



Mendizaleak Uharteko kontrolean.

MENDIA 1.219 mendizale Sakanako Ibilaldirako prest

Bihar, larunbata, abiatuko da Iratxo elkarteak antolatutako XXXIII. Sakanako Ibilaldia. Guztira 1.219 mendizalek eman dute izena: 434k Sakanako Ibilaldi Luzean (54,3 km), 624k Sakanako Ibilaldi Laburrean (25,5 km) eta 161ek Sakanako Ibilaldi Txikian (14 km). "Eguraldi txarra iragarri dutela kontuan izanda, parte hartzea handia iruditzen zaigu" azaldu du Doris Vicentek.



Montero eta Irigoien, sariekkin. BARGAGAIN

TAEKWONDOA Irati Irigoieni eta Gerardo Monterori, aitortza

Espainiako Taekwondo Federazioak urteko gala ospatu zuen, eta Bargagain Taekwondo klubeko bi kide oholtzara igo ziren. Irati Irigoien urdiaindarrak bi aipamen jaso zituen, Unibertsitateen Arteko Txapelketako brontzearengatik, eta Europako 21 urtez azpiko Txapelketan parte hartu izanagatik, eta Gerardo Montero irakasleak Seigarren Dan mailako diploma jaso zuen.

Altsasuko Bargagaingo Igoera, ate joka

MENDI LASTERKETAK Dantzaleku Sakana atletismo klubak maiatzaren 4an antolatutako lasterketak ibilbide zoragarria du, Navartrail Koparako baliagarria da, eta maiatzaren 2ra arte eman daiteke izena

Maidar B.G. ALTSASU

Altsasuko Alde Zaharreko festekin batera, maiatzaren 4an, larunbatarekin, Bargagaingo Igoera-Izelai Hotel Sari Nagusia jokatu da. Lasterketa Dantzaleku Sakana Klubak antolatu du, zenbait laguntzaile eta babesleekin batera, eta proba Nafarroako Atletismo Federazioak antolatu duen Navartrail Koparako baliagarria da.

Bargagaingo Igoera maiatzaren 4an 10:00etan abiatuko da Altsasuko Foru plazatik. Lasterketak 21,96 km eta 1.144 m desnibel + du. Korrikalariek berehala Bargagaingo bidea hartuko dute, baina Urdiain aldera egingo dute, Buztintzatik Bargara igoz eta Eraitzatik Urdiainera jaitsiz. Segidan Iturmendira helduko dira, eta berriro mendian gora egingo dute, Atxumendi gaindituta Santa Marinara heltzeko. Handik Altsasuko dermio alde-rantz joko dute korrikalariek, Bargagain pean buelta ederra



Joan zen urtean jokaturako II. Bargagain igoerako irteera.

eginez eta Altsasuko helmugako bidea hartuz.

Izena emateko azken egunak

Lasterketan parte hartzeko gutxieneko adina 18 urtekoa da, eta antolakuntzak gehienez 200

partaide onartuko dituela azaldu du. Izena ematea zabalik dago Rockthesport.com plataforman, maiatzaren 2ko 23:59ak arte. Korrikalariek kamiseta ederra eta edateko ontzi bilgarria jasoko dute opari.

Altsasu, Ochoa de Olza Fundazioarekin

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Iñaki Ochoa de Olza SOS Himalaya fundazioa lagunduko du maiatzaren 11n antolatuko duen Hiru Mendizerrak mendizerrarekin. Joan zen urtean Irurtzango Iratxo elkarteak babestu zuen aipatu fundazioa, eta fundazioak Makalu bailarako Seduwa herrian duen ospitalerako 6.000 euro lortu zituen. Aurten, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak hartu du fundazioa laguntzeko lekukoa.

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak asteartean aurkeztuko du Hiru Mendizerrak ibilbidea, eta orduan emango ditu xehetasun guztiak, baina klubak, aurretik, maiatzaren 3rako antolatu duten hitzaldi baten berri eman nahi izan du. Fundazioko koordinatzaile Elena Sagaseta de Ilurdozek lortia Kultur Gunean "La voz de Iñaki" solasaldia eskainiko du, 19:00etan, lortia Kultur Gunean. Sarrera 3 eurokoa izango da eta aipatu fundaziora bideratuko da.



NAFARROAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

Educa programa, Altsasun

SASKIBALOA Igandean, Nafarroako Saskibaloia Federazioak sustatutako Educa programaren azken jardunaldia hartu zuen Altsasuko Zelandi kiroldegia. Guztira 42 neska-mutikok hartu zuten parte, eta saskibaloiaz gozatzeko aukera izan zuten, CBASK-ek antolatutako jokoen eta bestelako bitartez. Gosari osasuntsua ere egin zuten.



JAVIER BERGASA

Estariaga, Hiru Herriko podiumean

ATLETISMOA Guztira 610 korrikalarik hartu zuten parte Burlata, Huarte eta Atarrabia batu zituen 34. Hiru Herri Lasterketan. 10 km-ko proban Asier Estariaga etxarriarra hirugarren sailkatu zen (33:10), bere taldekide Miguel Aristuren (32:07) eta David Palomoren (32:27) atzetik, eta 6 km-ko proban Iraitz Senar lakuntzarra seigarren izan zen (15:37).

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 26

ALTSASU Hitzaldia.

Heroina 1980ko eta 1990ko hamarkadetan Susi Arteta eta losu Imazen hitzaldia, Altsasu Memoria elkarteak antolatuta. Gonbidapenak agortuta.

18:00etan, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Dantzabideak Oholtzara salto dantza erresidentziaren Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolako, Altsasu BHIko eta Altsasuko Korazonistak eta Iñigo Aritza ikastolako ikasleen ikuskizuna eta Dantzas konpainiaren Youth dantza ikuskizuna.

18:00etan, Zumalakarregi plazan.

UHARTE ARAKIL Solasaldia.

Literatura Geraldia: Miren Agur Meabe idazlearen *Itzulerak* liburuaren inguruko solasaldia.

19:00etan, udaletxean.

ALTSASU Jolasak.

Harrotze astea: Haur, gazte eta familiendako jolasak kaleak eta

auzoak euskalduntzeko, Iñigo Aritza Ikastolako Hizkuntza Proiektuko taldeak antolatuta.

19:00etan, Foru plazan.

ZIORDIA Argazkia.

Harrotze astea: argazki erraldoia, Euskal Herrian Euskarazek antolatuta.

19:00etan, gaztetxearen aurrean.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Azken ostirala: Preso, iheslari eta deportatuak etxera elkarretaratzea.

19:30ean, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Elkarretaratzea.

Azken ostirala: Preso, iheslari eta deportatuak etxera elkarretaratzea.

20:00etan, San Martin 7.ean.

ARBIZU Elkarretaratzea.

Azken ostirala: Preso, iheslari eta deportatuak etxera elkarretaratzea.

20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Elkarretaratzea.

Azken ostirala: Preso, iheslari eta deportatuak etxera elkarretaratzea.

20:00etan, udaletxearen aurrean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Radical gaurkotasuneko filmaren emanaldia

Igandea 28: 19:30
Astelehena 29: 19:00

La aventura infinita familiarteko animaziozko filmaren emanaldia

Igandea 28: 17:00

Siempre nos quedará mañana gaurkotasuneko filmaren emanaldia.

Osteguna 2: 19:00

LARUNBATA 27

IRURTZUN Ibilaldia.

XXXIII. Sakanako Ibilaldia, Iratxo elkarteak antolatuta.

06:00 Martxa luzea: 54,3 km eta 3,388 desnibela, Atakondoa frontoitik.

08:00 Martxa Laburra: 25,5 km eta 1440 desnibela, Foru plazatik.

09:30 Martxa Txikia: 14 km eta 736 desnibela, Atakondoa frontoitik.

URRITZOLA Liburu trukea.

Liburuaren eguna: Liburu elkartruckerako azoka.

Goizean, plazan.

ETXARRI ARANATZ Tailerra.

Mugimendu tailerra Disiden.Cia dantza konpainiako dantzariekin.

11:30ean, kultur etxean.

LAKUNTZA Jokoak.

Abentura eta soka jokoak.

17:00etan, plazan.

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza zerbitzua.


17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.



ALTSASU Uholdeak Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren programaren erakusketa: bat bitan.

Oharrak, zirriborroak, partiturak eta beste belarrirako idazkerak Audiolab kolektiboaren parte den Xabier Erkiziak komisariatuta.

Apirilaren 28ra arte. Iortia kultur guneako erakusketa aretoan.



IRURTZUN Leitzako Amazabal institutuko DBH 4. mailako ikasleen arkatzezko marrazkien erakusketa.

Apirilaren 28ra arte. Pikuxarren.



ZIORDIA Collage Expo Sara erakusketa.

Apirilaren 15etik 30ra. Liburutegian.

ALTSASU Festa.

Altsasuko Merkataritzaren VI. Jaia, Altsasuko Dendarien Elkarrekin antolatuta.

Foru plazan (eguraldi txarrarekin Iortia zabalgunean).

18:00 Haurren txokoa, Liburunda paperdendaren eta Arkatz Liburudendaren eskutik. DJ

Sergei. Sidra Baldorba Naturel eta Sagarraleku dastaketa.

18:30 Parte hartzaileen artean 1.500 euroko zozketa.

19:00 Merkataritari omenaldia.
19:30 Enpanada erraldoiaren dastaketa.

Bazkide zozketa

APIRILEKO SARIDUNAK

1. SARIA

M. Carmen Iraurgui Otatzu (Etxarri Aranatz)

2. eta 3. SARIAK

Mirian Lopez de Sabando Mozo (Etxarri Aranatz)

Altsasuko mendigoizaleak (Altsasu)

Izaskun Kintana Etxeberria (Bakaiku)



Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioseviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ALTSASU Antzerkia.

lortia Antzerki Tailerraren *Tres años después* antzezanaren emanaldia: Hondamendi baten ondoren Sakanako bazter batean aurrera egiten jarraitzen duen emakume eta talde baten komeriari kontatzen ditu. Sarrerak: 5 euro.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 28**IRURTZUN Mendi irteera.**

Federacion Vasco Navarraren mendeurrena ospatzeko Iratxo elkartearen mendi irteera: Ergara igoera.
08:00etan, elkartetik.

ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.

Federacion Vasco Navarraren mendeurrena ospatzeko Larrañeta elkartearen mendi irteera: Beriainera igoera.
08:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Mendi irteera.

Federacion Vasco Navarraren mendeurrena ospatzeko Altsasuko Mendigoizaleak taldearen mendi irteera: Dulantzera marxta.
08:00etan, egoitzatik.

OLATZAGUTIA Futbola.

Sakanako Benjaminen Areto Futbol - Futbol 8 Topaketak.
Erburua kiroldegian.

10:00 Arbizu K.T. - Aralar Mendi.

11:00 Altsasu K.E. - Uharte Neskak.

12:00 S.D. Altsasu - Etxarri Aranatz kirol elkarte.

13:00 Altsasu - Sutegi.

ALTSASU Gimnasia erritmikoa.

Gimnasia erritmikoko Klubaren arteko ligaren II. Fasea.

11:00etan, Zelandi kiroldegian.

ETXARRI ARANATZ Elkarretaratzea.

Genozidioa gelditu! Palestina askatu! Etxarri-Palestina elkartasun taldearen elkarretaratzea.

13:30ean, udaletxearen aurrean.

ALTSASU Gazte agenda.

Gazte zinema.

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ Dantza ikuskizuna.

Bipedestruktzioa Disiden.Cia konpainiaren familiarterko dantza garaikideko ikuskizunaren emanaldia.

Sarrerak: 6 euro.

18:30ean, kultur etxean.

ASTELEHENA 29**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 30**ALTSASU Hitzaldia.**

Beleixe irratia 25. urteurrena:

Euskara kirolean mahai ingurua Jagoba Arrasate Osasunako entrenatzailearekin, Yolanda Martil Xotako jokalarri eta kapitainarekin, Maitane Vilariño Osasunako jokalarriarekin eta Igor Martinez saskibaloi entrenatzaile eta Conquiseko parte hartzailearekin, Iñaki Berastegi kirol kazetariak gidatuta.

18:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 1**ETXEBERRI Txirringularitza txapelketa.**

Junior mailako Lacturale Txirringularitza Trofeoa: 89,100 km. Helmuga: Goldaratz.

10:30ean, Lacturaletik.

OSTIRALA 3**IRURTZUN Antzerkia.**

Irurtzuno Antzerki Taldearen *Un día de campo* antzezanaren emanaldia: Gerrari buruzko obra bat da. Zelai nahaspilatsuekin jolastuko dira, gerra gizateriaren erabateko akatsa baita. Barre egin nahi diote, gerrak graziaz ez duen arren, gerrak egiten dituztenei, ideia absurdoei, bultzatzen dituzte ideia kriminaleri. Sarrerak: 5 euro.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Hitzaldia

SOS Himalaya - Iñaki Ochoa de Olza fundazioko Elena Sagaseta de Ilurdozekin solasaldia. Sarrerak: 3 euro.

19:00etan, lortia kultur gunean.

IRAGARKI SAILKATUAK**HIGIEZINAK****SALGAI**

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuak deitu 669 156 117 telefonora.

LANA/NEGOZIOAK**ERRENTAN EMAN****Ziordiko Udalak Etxaleku taberna emateko deialdia egin du:**

Urte baterako kontrata eskaini du, hirutan luza daitekeena. Eskaintzak maiatzaren 14ra arte aurkez daitezke. Deialdiari buruzko informazioa udaletxean edo labur.eus/BMZg7 web orrian dago.

LEHIAKETAK**Irurtzuno jaietako kartel lehiaketa martxan:**

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 27an amaitzen da. Sariak egonen dira bai haurren kategorian bai heldunen kategorian ere. Oinarriak eta informazio gehiago www.irurtzun.eus web orrian, Irurtzuno Udaletxean eta kultur etxean.

"Erdialde" euskarazko idazlan laburren 17. lehiaketa: 6 urtetik gorako haurrei zuzendua, maila ezberdinetan banatuta egongo da lehiaketa, maila bakoitzeko 3 sari. Lanak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 30an amaitzen da Miranda de Argako Tudelana kaleko

3.zbkiko egoitzan edo erdialde.euskararenlagunak@gmail.com posta elektronikora idatziz. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> antolatzaileen helbidean. Sariak 2024ko maiatzaren 18an banatuko dira, Miranda de Argan izanen den "Euskararen eguna" ospakizunean. Irabazleei alde zurreratik abisatuko zaie.

Memeka gazteendako meme-lehiaketa martxan: Memek sortuz gaitzen artean euskararen erabilera sustatzeko, 15-18 urte bitarteko nerabeei zuzendutako lehiaketa. Memek sortzeko memeka.eus plataforma erabili behar da, gaia librea da baina memeetan txertatuko diren testuak euskaraz idatziak egon beharko dute. Bi sari egongo dira: webgunearen bidez bozka kopuru gehien jasotzen duten memearentzat 200 euro eta Memekako Instagram eta Pixelfed kontuetan like kopuru gehien jasotzen dituenarentzat 150 euro. Memek aurkezteko epea apirilaren 21ean amaitzen da. Informazio gehiago www.azkuefundazioa.eus eta www.iametza.eus web orrietan.

Arakildik Lizarrara irteera kulturala antolatuta da: Maiatzaren 4ean izanen da, jardueran parte hartzeko Arakildo udaletxean izena eman behar da apirilaren 29a baino lehen, 25 euro ordainduz.

Altsasuko Udalean egur loteak eskatzeko epea zabaldu da: Eskaera 948 012 012 telefonora deituz egin behar dira maiatzaren 10a baino lehen. Informazio gehiago www.altsasu.net web orrian edo udaletxean.

Muga Zerok autobusa antolatu nahi du Herri Urratsera joateko: Nafarroa gunean kontzertua eskainiko dute eta bertara joateko autobusa antolatzen ari dira. Irteera goizeko 08:00etan eta

OHARRAK

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan izena emateko epea zabalik:

Zalantzak eta informazio gehiago 948 564 581 telefonon. Matrikula egiteko administrazio ordutegia 15:00etatik 20:00etara, online www.altsasu.net web orrian. Epea maiatzaren 22ean amaitzen da.

Etxarri Aranazko Udaletik etxerako egur loteak eskatzeko epea zabaldu dute: Lote bakoitzak 44 euro balio du. Eskabide orria beteta eta ordainagiria aurkeztu behar dira zozketan parte hartzeko. Epea maiatzaren 17an amaitzen da. Zozketaren eguna eta ordua bando bitartez jakinaraziko da.

Arakildo Udalak gazteendako kooperazio beka deialdia egin du: Garapen bidean dauden lurraldeetan kooperazio helburu duen gobernuz kanpoko erakunde batekin lan egin nahi duten gazteei zuzenduta dago. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 13an amaitzen da, informazio gehiago Arakildo Udalean edo www.arakildo.eus web orrian.

Sakanako Mintzakide taldeak: Altsasun astelehenean 10:00etan liburuetan, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan eta ostiraletan 9:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiraletan, 17:00etan liburuetan, Etxarri Aranatz ostiraletan 19:00etan Xapatero tabernan, Arbizun astelehenean 16:30ean kiroldegiko tabernan, Lakuntzan asteazkenean 18:15ean jubilatuta elkartearen eta Irurtzunen astelehenean 18:30ean Iratxo tabernan, ostegunetan 9:00etan Pikuxarren eta ostiraletan 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa platafor-

mairekin batera **Elkartasun Aktiboa inizatiba marxtan jarri du:** Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpenei ekonomiko egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabilita dirua eman.

Patxi Bisquerten 'Ombuaren itzala' filma bukatzeko diru ekarpenak: Otaño bertsozari-poetaren bitzita eta obrari buruzko filma bukatzeko diru ekarpenak egitera animatzen zaituztegu: <https://www.verkami.com/projects/37275-ombuaren-itzala> webgunearen bitartez egin daitezke edo egilearekin harremanetan jarri eta kontu korrontean zerbaki helaraziko dizue: pmirenbisquert@hotmail.es emailera idatziz edo 687 841 313 telefonora deituz. Proiektuari buruzko informazio gehiago: <https://pellomario-tañoauzolana.eus> webgunean.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

**HERIOTZAK**

• **Jose Luis Urteaga Echarri**, apirilaren 19an Altsasun

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskela@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Dantzaz konpainiako dantzarien dantza klaseak ikastetxeetan

Oholtzara salto! programa izan da egunotan; gaur dantza ikuskizuna izanen da Zumalakarregi plazan

SAKANA

Dantzabideak programaren dantza emanaldia izanen da gaur, apirilak 26, ostirala, 18:00etan, Altsasuko Zumalakarregi plazan. Dantzaz konpainiak *YOUth* ikuskizuna aurkeztuko du, eta Altsasuko institutuko, Jesusen Bihotza ikastetxeko eta Iñigo Aritzako DBHko bigarren mailako ikasleek eta Andra Mari ikastolako DBHko hirugarren mailkoek aste honetan ikasi dituzten koreografiak erakutsiko dituzte ikuskizunean.

Oholtzara Salto! Etxarri Aranzko, Altsasuko eta Olaztikoko

Udalek, Dantzaz konpainiak eta Global Sevicios Culturalesek arte ezenikoak gazteengana hurbiltzea helburuarekin martxan jarritako programa bat da. Hortaz, apirilaren 22tik 26ra, eskola orduetan, Dantzaz konpainiako dantzariak ikastetxeetan izan dira erresidentzia artistikoa eginez. Ikasleek dantzaren oinarriak eta mugimenduak ikasi dituzte, eta koreografiak sortu dituzte. Ikasitakoa oholtzara eramanen dute gaur. Dantzaz konpainiaren, La Caixa fundazioaren eta Nafarroako Kutxaren laguntza du proiektuak.



BAZTERRETIK

EKAIN ALEGRE GIL

Kartelak

Maiz ikusten ditut kultura ekitaldiak (kontzertuak, batez ere) iragartzen dituzten kartelak kalean (eta baita mugikorrean ere), baina horiek ikusi eta berehala nire buruari galdetzen diot ea Ctrl+C Ctrl+V bidez egindakoak al diren, izen berberak ikusten baitira uneoro eta hainbat kasu errepikatzen direla uste dut orokorrean.

Batetik, tokian tokiko totemak daude, hau da, aspaldi haien esparruan izen bat egin zuten artistak eta urte luzetan aspaldiko errenta horretatik bizi direnak. Boladek ez diete eragiten, beti izango baitute jarraitzaile tropa bat emanaldietan, eta hori gutxi balitz, hedabideek haien aldeko propaganda egingo dute, nagusitasuna betikotzeko.

Bestetik, modan dauden artistak daude. Normalean urtero aldatzen dira hiruzpalau artista horien izenak eta algoritmoak (edo bestelako sistema batek) erabakitzen du zein izango diren. Izen batek

funtzionatzen duela ikusi ondoren, jendea aspertzen den arte agertuko da kontzertu, ekitaldi edo bestelakoetan, kartel guztiak harentzat hartuta.

Esandakoak haserretik egindako kritika baten itxura izan dezakeen arren, azkenaldian sarritan errepikatzen den joera bat dela esango nuke, eta neurri handi batean, gaur egungo gizartearen dinamikak sortu du joera hori.

Egia da artista berri asko daudela gaur egun eta aukera bat merezi duela horietako artista bakoitzak, baina sortzen den edukiaren erritmoa gehiegizkoa da, eta kulturaren *fast food* sistema horrek saturaziora darama kontsumitzailea, eguneraketa konstantea ezinezkoa bihurtu den arte.

Eta hainbeste informazioaren artean gustatuko zaigun zeozer deskubritzea zaila bihurtu bada ere, batzuetan merezi du joerari buelta ematea, kulturari dagokion denbora eta lasaitasuna eskainiz, badago zer aurkitua eta.



Itziar Nazabalek performancearekin sortutako 'Human Life and Diversity' lana. GHASSEN GHERISSI

Nazabalen artearen unibertsaltasuna

Artista altsasuarraren 'The dance of the Nature' (Naturaren dantza) erakusketa Hego Koreako Haegeumgang Teme Museumean izan da; erakusketa ibiltaria da eta, beraz, Asiako herrialdeko zenbait musotan izanen da ikusgai

Erkuden R. B. ALTSASU

2023ko udazkenean Itziar Nazabalek Hego Korea bidaia egin zuen bertako Goejeko Haegeumgang museoan antoaltzen duten *Life is Art* nazioarteko arte erakusketan epaimahaikide izendatu zutelako. Bidaia "estresantea" izan zela aitortu du artistak, baina esperientziarekin pozik dago. Jaialdiaren ondoren, Nazabalen *The dance of the Nature* naturaren oinarritutako erakusketa mustu zuten martxoaren lehen Haegeumgang museoan. Apirilaren 25era arte altsasuarraren hamazazpi lan eta performancearen murla ikusgai egon dira, Orain Hego Koreako zenbait museotara bidaia hasi du erakusketak.

The life is Art jaialdia zenbait museotan egin zen: "Leku desberdinetatik mugitzen ginen. Bira antzeko bat egin genuen, eta egunero autobusa gora eta behera ibiltzen ginen". Zonaldea "hemen bezala" menditsua dela esan du: "Ez genekien zehazki nora joaten ginen, eta toki batetik bestera

iristeko asko kostatzen zen". Esperientzia "oso mugitua" izan zela esan du artistak, "aurten ere eskaini zidaten, baina haize pixka bat behar nuela esan nien".

Artea edonon

Mustutze ekitaldian Nazabalek haren ezaguna den performancea egin zuen. "Aurretik ezin izan nuen gustatzen zaidan bezala prestatu", baina prestatu zioten tokia "izugarria" zela kontatu du. "Horma handi bat, ingurua egurrezkoa, farolilloekin...". Performancearekin oso pozik gelditu zen artista: "Inportanteena ez da emaitza, baizik eta eztanda hori. Inoiz baino gehiago sentitu nuen". Lehendabiziko eztanda da inportanteena, "eta trantze batean sartzen naiz, baina oraingoan melodiarekin joaten nintzen, eta nik ez dakit dantzatzeko, baina mugimenduak sentitzen eta egiten nituen".

The life is art, Bizitza artea da, jaialdiaren filosofia jarraituz, eta bizitza "edonon" aurki daite-

kela kontuan hartuz, esekitoki bat margotu zuen Nazabalek. "Niretako zerbait unibertsala da. Denok sartzen gara arropa gai horretan. Edertasun bat dago arropa zintzilik irudi horretan, bizitza eta aniztasuna irudikatzen du". Egindako murla Hego Korean gelditu da artista altsasuarraren beste hamazazpi artelan erakusketa ibiltarian. Performancearen bideoa ikusteko aukera ere badago bertan.

The dance of the Nature erakusketan ikus daitezkeen lanak Hego Koreako jaialdirako propio sortutako artelanak dira. "Eskaera onartu nuen eta aurreko urte osoan egin nituen, epaimahai izatearen kudeaketa lanarekin uztartzen nuen bitartean". Gogorra izan zela aitortu du artistak. Landareak dira protagonistak erakusketa honetan: "Naturaren inspiratu naiz, naturaren edertasunean, mugimenduan, fintasunean, grafismoan...". Bitxikeria bezala, maletan eraman zituzten artelanak Hego Korea.



Aingura taldeko kideak 'Garenaren Arrazoia' diskoarekin: Urriza, Adur, Edu, Oier eta Antolin. UTZITAKOIA

"Musikari dagokionez helburua nahiko argi genuen"

ADUR RAMIREZ DE ALDA POZUETA MUSIKARIA

Bi lagunekin batera Aingura punk-oi taldea sortu zuen altsasuarrak; boskotea egin zuten ondoren. 'Garenaren Arrazoia' diskoa kaleratu dute orain, zortzi abestiz osatuta

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Nafarroa Garaiko herri desberdinetatik elkartu diren bost lagunek Aingura taldea sortu zuten duela pare bat urte inguru: Oier gitarra jole iruindarrak; Antolin baxu jole agoiztarrak; Edu abeslari erriberrirak; Nafar ekialdeko haran batekoa da Urriza bateria jolea, eta taldekideen artean ere sakandar bat dago, Adur Ramirez de Alda Pozueta gitarra jole altsasuarra. Aingurak *Garenaren Arrazoia* diskoa kaleratu du, eta bertan, besteak

beste, belaunaldi gazteek bizi duten espektatiba faltari, desesperantzari, biolentzia psikologikoa, ekonomikoa, soziala eta politikoari, eta krisi ekologikoari buruz hitz egiten du boskoteak. Sakanan Altsasuko Lezea eta

"GURE DOINUAK NAHIKO MELODIKOAK DIRA; EZ DA PUNK OI KLASIKO BAT, GOGORRA"

Idergi tabernetan salgai dago diskoa.

Nola sortu zen Aingura taldea?

Aspaldiko hiru laguneren artean sortu zen. Urriza, Antolin eta ni Iruñeko Herriko Tabernan ostegun batean pote batzuk hartzen ari ginen eta haiek aurretik beste talde bat zuten, beste estilo batekoa, eta esan zuten ea animatzen ginen horrelako zerbait muntatzera. Nik ez nekien oraindik gitarra jotzen, espetxean zer edo zer ikasi nuen, baina esan nien baietz, animatzen nintzela.

Beste gitarrista bat, nagusia izango zena, eta abeslaria behar genuela esan genuen eta Iruñeko jende desberdinarekin tanteatzen hasi ginen. Hasieran Gaizka sartu zen, baina beste bi taldetan zegoen eta esan zigun ezin zuela gurekin jarraitu, eta orduan Edu sartu zen, ibilbidea gurekin egin duena. Bagenekien punk-rock eta punk-oi eszenan zerbait egin nahi genuela. Gaur egun Iruñean eta Euskal Herrian gurekin gehien identifikatzen den estiloa da, eta bagenekien hortik joango ginela. Musikari dagokionez helburua nahiko argi genuen.

Nolakoak izan ziren hasierak?

Hasieran dezente kostatu zitzaigun dinamika hartzea. Baina lehenengo kontzertua Antzina tabernan egin genuen; piszina bota ginen pixka bat. Taberna lehenengo kontzertu bat egiteko toki hoberena da, taberna, lagunak, oso espazio txikia eta jendeari gustatzen zaion eszenatokia da. Orduan, aukera paregabea zen. Segituan kantak grabatu nahi genituela esan genuen, are gehiago, lehenengo kontzertua grabatu genuen ere. Gure filosofia da ahalik eta gehien guk sortu eta guk grabatu, inoren eskutan ez egoteko. Antolinek etxean estudio bat dauka, eta berarekin grabatu genituen abestiak.

Beraz, hasieratik zuen abestiak sortu dituzue. Zein da prozesua?

Lehenengo musikalak ditugu, Antolinek egiten ditu, gehienbat inspirazioa sartzen zaionean, egiten du, eta proiektuak bidaltzen dizkigu. Taldekideren batek proiektu horri letra bat sartzen dio eta probatzen joaten gara. Momentuz horrela egiten dugu.

Zertan desberdintzen zarete?

Gure doinuak nahiko melodikoak dira. Ez da punk oi klasiko bat, gogorra; guri melodikoagoa izatea gustatzen zaigu, entzungarriagoa. Diskoan entzuten duzunean konturatzen zara edozeinek entzun dezakeen diskoa dela, ez da behar izatea punk oi zalea. Horrekin nabarmendu nahi izan dugu. Letrek oso gaurkotasunetik hitz egiten dute. Niri gustatzen zaidan beste zerbait da bi belaunaldien arteko lotura dagoela

"NIRI GUSTATZEN ZAIDAN GAUZA BAT DA BI BELAUNALDIEN ARTEKO LOTURA DAGOELA"

taldean: Oier eta Edu gazteagoak dira, 21-22 urte dituzte; eta gero Urriza, Antolin eta ni 30 urte tarte horretan gaude. Bi belaunaldi horiek elkartzen dira.

'Garenaren Arrazoia' diskoa kaleratu duzue. Nolako da?

Aurretik lau abesti grabatuta genituen, eta orain abesti horiek birgrabatu ditugu, Edurekin, abeslariarekin, aurretik lehenengo abeslariarekin genituelako. Beste lau abesti grabatu ditugu, eta horietako bat Benito Lertxundiren abesti baten bertsio bat da Rotten XIII.-ko Endikaren kolaborazio batekin. Oihartzun handia izan du, azkenean Benitok gure herrian duen garrantziagatik, eta jendeari asko gustatu zaio. Horrek igoera handia eman digu. Abesti guztiak euskaraz dira, bat izan ezik. Antolinek, baxu joleak, ez daki euskara. Kaña sartzen diogu, baina oraindik ez daki. Bere familia argentinarra da, eta berak egin zuen abesti bat kontatzen bere familiak egin zuen migrazio prozesua. Apirilaren hasieran Argentinatik itzuli berri zen, eta Iruñean jo genuen kontzertuan abestiaren unea oso hunkigarria izan zen, emozionala zen, oso polita izan zen.

Nola izan da prozesua?

Diskoa Antolinen estudioan grabatu genuen ere, baina konturatu ginen zer edo zer gehiago nahi genuela, eta soinu aldetik hasiera batean ez zara konturatzen, baina gero aldaketa handia dago. Orduan, pista horiek estudio batera bidali genituen, eta masterizatu ditu. Diseinua Urriza, bateria joleak, egin du, diseinu grafikogilea da, eta guztia etxean gelditu da.

Nolakoak dira zuzenekoak?

Denetarik izan dugu. Apirilaren 12an Iruñean egin genuenean oso polita izan zen. Amerikako Estatu Batuetako talde batekin jo genuen, eta hemengo giroarekin flipatu zuten. Espazioak asko egiten du, herria, ezagutzen zaituzten edo ez, eta egia esan oraingoz harrera txukuna izan dugu. Aurreko kontzertuan diskoa kaleratu ondoren egin genuen lehenengo izan zen, eta nabaritzen zen jendeak letrak bazekizkiela. Sorpresa handia hartu genuen; giroa aldatzen da. Publikoa zurekin dago.

Nola duzue agenda?

Hilabetean behin edo bitan jotzen saiatzen gara. Garden eta Tuteran emango ditugu kontzertuak, eta beste batzuk itxita ditugu ere.

"Euskararekiko proaktiboak izatea ezinbestekoa da"

BELEIXE IRRATIAREN 25 urteurreneko ekitaldietan, apirilaren 30ean, asteartea, 18:00etan, 'Euskara kirolean' mahai ingurua gidatuko du Iñaki Berastegi Euskadi Irratiko kazetariak Iortia Kultur Gunean, gonbidatu oso bereziekin: Arrasate, Martil, Vilariño eta Martinez

Maidar Betelu Ganboa URDIAIN

1 Argi al zenuen kirol kazetari izan nahi zenuela?

Bai. Kazetaria den lehengusina bat dut. Bekadun hasi zenean, Nafarroako futbol erregionalaren berri ematen jarri zuten, eta hori izan zen kazetaritza ikastera motibatu ninduen nire lehen pizgarria. Futbola eta kirola oso gustuko ditudanez, argi nuen kirol kazetari izan nahi nuela.

2 Aitor Manterola eta Eñaut Barandiaranekin batera Harmaila kirol aldizkaria sortu zenuen. Zergatik iraun zuen horren gutxi?

Hasteko, irakurtzeko ohiturak aldatzen ari direlako. Paperean gutxiago irakurtzen da. Egunkaria irakurtzen da, baina aldizkariak geroz eta gutxiago. Harmaila arnas luzeko kazetaritza zen; urtean bost ale kaleratzen genituen, eta testu landuak ziren, erreportajeak eta elkarrizketak.

Testu luzeak irakurtzearen ohitura galtzen ari da; testu motzak gehiago irakurtzen dira. Eta, agian, ez da euskarri bat ere behar idazteko: Twitterren hari bat idatzita, oso irakurria izaten da. Beste lan batzuk genituen eta adizkaria utzi genuen. Produktu ona zen, baina ez zuen merkaturan bere tokia aurkitu.

3 2020an Youtuben kanala zabaldu zenuen. Bideoak sortzen jarraitzen duzu?

Pandemia garaian sortu nuen, etxean itxita geundelako. Jarraitu nuen, baina lana eskatzen du eta pixkanaka uzten joan nintzen. Aspaldian ez dut ezer igotzen.

4 Euskadi irratiko kirol kazetaria zara. Irratia al da gehien gustuko duzun komunikabidea?

Euskarri guztietatik gustukoena irratia dut, alde handiarekin, eta uste dut hobekien egokitzen zaidan medioa dela. Irratiaren

berehalakotasun hori, inprobisatzeko une hori... gustuko dut.

5 Kirolen artean futbolarekin moldatzen zara hobekien.

Zalantzarik gabe. Futbola narratzea errazena eta gustukoena da niretako, agian gehien kontrolatzen dudana kirola delako, eta gehien gustuko dudana. Nolanahi ere, zuzeneko kirol emankizunak eskaintzeaz gain, kirol albisteak ere egiten ditugu, eta kirol guztietatik kontrolatzen dugu pixka bat, denetatik lantzen dugulako.

6 Euskadi Irratiko saioetarako kirolari euskaldunak lortzea zaila izaten da oraindik?

Ez da gaztelaniaz bezain erraza, oraindik ere Euskal Herrian euskaldunak ez diren kirolari asko ditugulako eta zailtasunak hor daudelako, baina geroz eta gehiago dira euskara menderatzen dutenak, eta euskaraz egiten ahalegintzen direnak. Iruditzen



Iñaki Berastegi Goikoetxea kirol kazetari urdiaindarra. UTZITAKOAN

zait hobetu egin dugula; ikasketak bukatu nituenetik 10 urte pasa dira eta aldaketa nabaritzen dut. Osasunaren kasuan lehen Oien Sanjurjo zen euskaraz hitz egiten zuen bakarretakoa, edo Mendilibar; eta gaur egun Jago-ba Arrasate dago, Aitor Fernandez, Unai Garcia, Jon Moncayola, Aimar Oroz... gazte gehienek euskaraz dakite.

7 Athleticen Kopako ospakizunetan polemika egon zen, gehienbat gaztelaniaz mintzatu zirelako.

Udaletxe barruan jokalaria mordoa elkarrizketatu genuen euskaraz, baina balkoian Iker Muniain kapitainak hartu zuen hitza eta berak ez daki euskaraz. Laneko perspektibatik bizi izan nuen eguna, baina ulertzen dut jendea ere minduta egotea.

8 Iortia mahai inguruan Jago-ba Arrasate egongo da. Arrasatek asko eman dio Osasunari, euskararen aldetik ere. Bere martxa gogorra izango da.

Galera handia izango da. Entrenatzaile gisa, berak egin duena hobetzea ezinezkotik nahiko gertu dago. Bestalde, traturako oso pertsona jatorra da, irekia,

beti prest laguntzeko, eta euskararen alde beti defentsa handia egin du. Galera izugarria da.

9 Yolanda Martil Xotako kapitaina da, Maitane Vilariño Osasunako jokalaria, eta Igor Martinez CBASK-eko saskibaloia jokalaria eta 'El Conquis' saioko kidea. 'Euskara kirolean', nondik joko duzu?

Lehendabizi jakin nahi dut euskarari dagokionez ea zein den euren errealitatea, bereziki euren taldeetan eta baita euren inguruan ere. Euskararen garapenik ikusten ote duten, eta zer dagoen hobetzeko. Hori abiapuntua izango da, ea hortik noraino desbideratzen garen.

10 Euskarak aurrera egin dezan, euskararen aldeko jarrera ezinbestekoa da, baita kirolean ere.

Jakina. Lehen planoan dauden kirolariek euskararekiko jarrera proaktiboak izatea oso garrantzitsua da. Euskarari ikusgarritasuna ematea. Lehen hitza euskaraz izatea.

11 Jarrera proaktiboak duzu: Twitterren euskaraz aritzen zara.

Gaztelaniaz, soilik norbaiti erantzuteko bada. Euskaraz idazten dut, horretan sinisten dudalako.

gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

Behar duzun guztia

BAZKIDEEK
**DES
KON
TU**
BEREZIAK

DISEINU GRAFIKOA | SAIO SUZIALAK
MAKETAZIOA | KOMUNIKAZIOA
IRUDI KORPORATIBOAK | PUBLIZITATEA
EGUTEGIAK | WEBSITEAK
LONAK | APLIKAZIOAK | CINAK | AGENDAK

f0

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu | info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus